



2006

Jardueren
Memoria

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco



Jardueren Memoria

C E S

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico
y Social Vasco



Aurkezpena

Nahiz eta Jardueren Memoria EAeko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen urte beteko lana aurkezteko izan, argi dago jarduketa esanguratsuenak baino ez direla aipatuko.

EAeko EGAB, oraindik ere, soilik Eusko Jaurlaritzak kontsultatzen du, nahiz eta berretsi egiten dugun Legebiltzarreko Lehendakariaren gainean, gure tratamendu aukerari dagokionez.

2006. urtean, 12 irizpen eskaera jaso ditugu; horietatik, 6ri buruzko irizpena eman zen eta gainera horiei Batzordearen Ekimeneko txostena gehitzea komeni da.

2006. urtean, EGABetik kanpoko adituen eskuetan utzitako eztabaida-jarduerari ekin gion. Horrela, bi eztabaida antolatu genituen eta horietan aditu kopuru handiak parte hartu zuen.

Aurten ere, adierazi behar dugu garrantzitsua dela, kalitatean zein kantitatean, EGABeko langile teknikoek zein Batzordekide eta aditu guztiek egindako lana.

Berriro aipatu behar da 2005. urtean ere aipatu genuen krisia, gure Erakundeari erabilgarritasunik ez ikusteari dagokionez, bai Gizarte Politikoaren aldetik zein Gizarte Zibilaren aldetik. Oraingoz, ez dirudi 2006. urteari dagokionez agiri honetan jasotako jarduera-hazkundea aldaketarik ekarri duenik jarreretan antzematen ditugun disfuntzionamenduen funtsari dagokionez.

Oraindik badaukagu esperantza are egoskorrenek eurek ere modu positiboan erreakzionatuko dutela.

ANTXON LAFONT MENDIZABAL

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetako Batzordeko Lehendakaria

Ziurtagiria

Nik, Javier Muñecasek, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko idazkari nagusiak, ondokoa

ZIURTATU DUT

Lehena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, ekainak 21ean egindako bilkura arruntean, besteak beste honako erabaki hau hartu duela:

«Bildutako kide guztien adostasunez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Jardueren Memoria, 2006. urteari dagokiona, onestea»

Bigarrena, argitalpen honek erabaki horretan aipaturiko Batzordearen Osoko Bilkurak onetsitako Memoriaren edukia oso-osorik jasotzen duela.

Eta, ondore egokiak izateko, ziurtagiri hau sinatu dut, Bilbon, ekainak 22an.

JAVIER MUÑECAS HERRERAS
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetako Batzordeko Idazkari Nagusia



Aurkibidea

KAPITULUA	I	EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA	9
		1. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea ..	10
		• Historia	10
		• Zer da EGAB?	11
		• Nortzuek osatzen dute?	12
		• Beren zereginak	12
		2. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Lan-batzordeen eta -organoen osaera 2006an	14
		• Osoko Bilkuraren 2006ko osaera	14
		• Batzorde Iraunkorraren 2006ko osaera	19
		• Ekonomia garatzeko Batzordearen 2006ko osaera	20
		• Gizarte Garapena aztertzekeo Batzordearen 2006ko osaera ..	21
		• Memoria sozioekonomikoa egiteko Batzordearen 2006ko osaera	22
		• Akitaniarekin turismo arloan lankidetzan jarduteko lan-taldearen 2006ko osaera	23
		3. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen organoek 2006an egindako bilkuren laburpena	24
		• Euskadiko EGABeko Osoko Bilkurak egindako batzarrak	24
		• Euskadiko EGABeko Batzorde Iraunkorrek egindako bilkurak	27
		• Euskadiko EGABeko Lan-batzordeek egindako bilkurak ..	30

KAPITULUA II	BATZORDEARI BURUZKO LEGEAN AURREIKUSTEN DIREN EGINKIZUNAK GAUZATZEA.	44
	• Batzordeak zenbait gairi buruz emandako irizpenak	45
	• EAEko egoera sozioekonomikoari buruzko memoria egitea ...	48
	• EGABek bere ekimenez txostenak egitea	51
	• EGABen eztabaidak	55
KAPITULUA III	ERAKUNDE-JARDUERA.	62
	• Erakunde-bilerak eta -agerraldiak	63
	• Autonomia erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeekin	67
	• Mugaz harantzagoko lankidetzak	68
KAPITULUA IV	GIZA BALIABIDEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN KUDEAKETA.	73
	• 2006ko aurrekontua.	74
	• EGABeko langileak	76
KAPITULUA V	EUSKADIKO EGABen DOKUMENTAZIO ETA PRENTSA ZERBITZUA.	77
	• Dokumentazio-zentroa.	78
	• Euskadiko EGAB eta komunikabideak	80
	• RTAren komunikazioa	85
KAPITULUA VI	EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI APLIKA DAKIOKEEN LEGEDIA.	87
	ERANSKIN BAKARRA: 2006ko ikuskaritza-txostena	89

I

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

1. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Bartzordea

EKONOMIA ETA GIZARTE GAIETARAKO BATZORDEEN HISTORIA

Oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Bartzordeen aurrekariak lehenengo mundu gerra amaitu osteko lehen urteetakoak dira. 1919an Lanaren Nazioarteko Bureau-a sortu zen; nazioarteko biltzar horretan, gobernuek, langileek eta enpresaburuek parte hartu zuten, denen artean lan-baldintzak hobetuko zituen nazioarteko legeria egiteko.

Hortik abiatuta, lehenengo ituntze-tresnak sortu ziren Europan; horiek izan ziren oraingo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Bartzordeen aurrekariak. Lehenengo erakundea Frantzia sortu zen, 1925ean, eta, geroago, antzekoak eratu ziren Europako beste herrietan, bereziki, bigarren mundu gerra amaitu ostean.

Europako Ekonomia Erkidegoak berak, bere organo gorenen artean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Bartzordea egin zuen. Funtsean, bateratuak dira denak, euren izaeran eta zereginetan: aholkularitza-organoa da, eta bere helburua da gizarte- eta ekonomia-interes askotako ordezkariak parte hartzea gobernuen politika ekonomikoan, eta, aldi berean, aukera ematea euren artean elkarrizketan eta lankidetzan jarduteko.

Era berean, Bartzordeak ez du jarrera pasiborik; ostera, berezko ekimena du gobernuek aintzat hartu beharko dituzten iradokizunak edo ebazpenak egiteko. Aholkularitza-organoa hori autonomoa da, ez da Gobernuaren menpekoa; eta bere txostenak, lotesleak ez izan arren, askotan aginduzkoak dira, eta beti dira aintzat hartzeko moduko iritziak.



EUSKADIKO EGAB

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea* Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren aholkularitza-erakundea da, eta bere helburua hainbat ekonomia eta gizarte-arduradunek Euskal Autonomia Erkidegoko politika ekonomikoan parte hartzea da. Batzordeak berezko nortasun juridikoa du, EAeko Administrazioak duena ez bezalakoa, eta erabateko gaitasuna eta askatasuna ditu bere zereginak betetzeko.

Ekonomia eta finantzazko autonomiaren irizpidetik, Kontseiluak bere aurrekontua onartzen eta betearazten du; aurrekontua finantzatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan esleitzen dizkioten kopuruak erabiltzen ditu.

Batzordeak Bilbon du egoitza. Legez sortu zen 1984. urtean, eta 1995. urte amaieran hasi zen funtzionatzen.

Funtzionatzen hasi zenetik, 1995. urtean, EGABek hiru agintaldi izan ditu, dagozkion presidente eta idazkari nagusiekin (horiek txandaka izendatzen dira, lau urterik behin).

- **Lehenengo agintaldian (1995-2000)**, presidentea Javier Mongelos Oquiñena izan zen (hirugarren taldeak edo talde mistoak izendatu zuen). Javier Hernández Bilbao izan zen idazkari nagusia, Euskal Enpresaburuen Konfederazioaren izenean (CONFEBASK).
- **Bigarren agintaldian (2000-2004)**, presidentea Rafael Puntonet del Río izan zen (Enpresa Taldeak izendatu zuen), eta idazkari nagusia Manu Aram buru Olaetxea izan zen, sindikatu taldearen ordezkari gisa.
- **Hirugarren agintaldian (oraingoa, 2004-2008)**, Antxon Lafont Mendizábal da presidentea (sindikatu taldeak izendatu du), eta idazkari nagusia Javier Muñecas Herreras da, hirugarren taldearen ordezkari gisa.

* 4/1984 Legeak, azaroaren 15ekoak, gero beste bi legek (ekainaren 30eko 15/1994 Legeak eta ekainaren 27ko 9/1997 Legeak) aldarazi dutenak, sortu zuen.

NORTZUEK OSATZEN DUTE?

- Batzordea hogeita hamabi lagunek osatzen dute, eta honela dago eratuta:
 1. Zortzi batzordekide, sindikatuen erakunde eta konfederazio nagusien ordezkartzan.
 2. Zortzi batzordekide, enpresaritza-konfederazioen ordezkartzan.
 3. Zortzi batzordekide, honako hauen ordezkartzan: merkataritza-, industria eta itsasketa-ganberak, aurrezki-kutxak eta finantza-erakundeak; kooperatibak; lan-sozietate anonimoak; arrantza-erakundeak; nekazartza-erakundeak; kontsumitzaileen erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
 4. Zortzi aditu, prestakuntza, eskarmentu eta askatasun handikoak.
- Batzordeak presidentea eta idazkari nagusia ditu. Gainera, zerbitzu teknikoak, administratiboak eta dokumentazio zerbitzuak ditu.
- Batzordekideak lau urteko denboraldirako izendatzen dituzte, baina berriro izenda ditzaten aukeraz.
- Erabakiak hartzeko organo gorena osoko bilkura da. Bere zereginen artean, besteak beste, lehendakariari proposatzen dio lehendakari kargua bete behar duen laguna nor den, idazkari nagusia izendatzen du, lan-batzordeak sortu eta ezabatzen ditu, eta Erakundearen aurrekontuak, urteko gizarte eta ekonomia gaitako eta jardueren txostena, eta batzordeek bidalitako irizpenen, ebazpenen eta txostenen aurreproiektuak onartzen ditu.

BEREN ZEREGINAK

- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten lege-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearena izan ezik.
- Ekonomia eta gizarte arloko politikarekin zerikusia duten dekretu-proiektuen txostena egin beharko du nahitaez, Jaurlaritzaren iritziz, garrantzi berezia badute.
- Jaurlaritzari proposamenak egingo dizkio, bere eskumeneko gaien gainean.
- Irizpenak, ebazpenak edo txostenak egingo ditu, bere ekimenez edota Jaurlaritzak eskatuta, aurreko ataletan aipatutako esparruetan.

- Legebiltzarrek egiten dituen kontsultei erantzuna emango die.
- Parte hartuko du Jaurlaritzak egingo dituen planetan, Autonomia Erkidegoko arlo publikoko jarduera ekonomikoaren gainekoetan.
- Urtero txosten bat egingo du, eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari aurkeztuko die; hor, EAEko ekonomia- eta gizarte-egoeraz duen iritzia azalduko du.



2. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen lan-batzordeen eta -organoen osaera 2006an

2.1. OSOKO BILKURAREN OSAERA (2006)

Lehendakaria
Idazkari Nagusia

ANTXON LAFONT MENDIZABAL
JAVIER MUÑECAS HERRERAS

14

A TALDEA

Sindikatuaren Erakunde edo Konfederakundeek izendatuak

ELA - Eusko Langileen Alkartasunak proposatuta

Titularrak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ
JULENE GABIOLA AMALLOBIETA
GERMAN KORTABARRIA IGARTUA
BIZENTE HARRIOLA ALBIZU

Ordezkoak

ALAZNE ALONSO IZURZA
JANIRE DOMÍGUEZ PÉREZ
KEPA ESTÉVEZ SÁNCHEZ
ITZIAR GABIKAGOGEASKOA ARRASATE

CC.OO - Euskadiko Batzorde LANGILEEN Sindikatu Konfederakundeak proposatuta

Titularrak

EDUARDO GARCÍA ELOSUA
JAIME GÓMEZ DEVESA

Ordezkoak

ANTXON TOMASENA ALZURI
FELISA PIEDRA GAGO

LAB - Langile Abertzaleen Batzordeak proposatuta

Titularra

RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ

Ordezkoa

OIHAN OSTOLOZA ARRUABARRENA

UGT - Euskadiko Langile Batasun Orokorrak proposatuta

Titularra

CARLOS TREVILLA ACEBO

Ordezkoa

RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA

Confebask Euskal Enpresa Konfederakundeak izendatuak

Titularrak

AITOR OTAOLA DÍAZ DE ALDA
VIRGINIA MÚGICA CONDE
JUAN ANTONIO MUGURUZA GOIRI
RAQUEL ECENARRO DEL RÍO
FCO. JAVIER AZPIAZU LASUEN
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO
MANUEL GUERRERO IGEA
JOSÉ GUILLERMO ZUBIA GUINEA

Ordezkoak

IGNACIO SAEZ DE GORBEA
ARTURO GARCÍA SANZ
JON BILBAO SARALEGUI
EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO
JOSÉ MANUEL FARTO LÓPEZ
ANA GARCÍA POLANCO
JOSÉ M.^a RUÍZ URCHEGUI
JUAN UGARTE AGUIRREZABAL

C TALDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko honako sektore, erakunde, izaki eta elkarte hauek izendatuak:

Merkataritza, Industri eta Nabigazio Ganberek izendatuak

Titularra

JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA

Ordezkoa

M.^a ASUNCIÓN BELAMENDIA AMEZAGA (06-01-10)

AMAIA ATUTXA ATUTXA (06/09/27tik)

Aurrezki Kutxek eta Finantza Erakundeek izendatuak

Titularra

PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO

Ordezkoa

RAFAEL ARANGUREN ILARDIA

Kooperatibek izendatuak

Titularra

FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA

Ordezkoa

JAVIER SALABERRIA AMESTI

Lan Sozietate Anonimoek izendatuak

Titularra

OLATZ JAUREGUÍZAR UGARTE

Ordezkoa

JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABETIA

Arrantza Erakundeek izendatuak

Titularra

JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN GONZÁLEZ/MIREN GARMENDIA

Ordezkoa

MIREN GARMENDIA ZEBERIO/ JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN

Nekazaritza Erakundeek izendatuak

Titularra

UNZALU SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA

Ordezkoa

ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ

Kontsumitzaile Erakundeek izendatuak

Titularra

JON ARIÑO GALLEGO

Ordezkoa

KOLDO NABASKUES SIMÓN

Euskal Herriko Unibertsitateak izendatuak

Titularra

JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA

Ordezkoa

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN

D TALDEA

D Taldea osatzen duten batzordeburuak - adituak

M.^a LUZ DE LA CAL BARREDO

ANTÓN BORJA ÁLVAREZ

RAFAEL PUNTONET DEL RÍO

FELICISIMO AYASTUY SÁEZ

IGNACIO BARRENECHEA GONZÁLEZ

JOSÉ M.^a URANGA AYESTARAN

ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA

ISABEL OTXOA CRESPO (06/11/29)/

(06/11/29tik) AITOR BENGOETXEA ALKORTA)



Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkuraren ohiko bilera

2006. urtean, ordezkapen hauek egin ziren:

- Amaia Atutxa Atutxa sartu da, 2006ko irailaren 27an, Euskadiko EGABeko Batzordekide gisa, Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberen aldetik. Hartara, bere aurretik egondako Maria Asunción Belamendíak utzitako hutsunea bete da, 2006ko urtarrilaren 10ean hil baitzen.
- 06/07/28an Arrantza erakundeek titularra ordezkoaren ordez aldatu zuten, eta alderantziz. Hartara, egun horretara arte titularra izan zen Juan Pablo Rodríguez Sahún ordezko izatera pasatu zen, eta Miren Garmendia ordezko izatetik titular izatera.
- 06/11/29tik Aitor Bengoetxeak Isabel Otxoa ordezkatzen du, D taldeko batzordekide aditu gisa.

**2.2. EUSKAL EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO
BATZORDEKO BATZORDE IRAUNKORRAREN OSAERA (2006)****Lehendakaria**
Idazkari NagusiaANTXON LAFONT MENDIZABAL
JAVIER MUÑECAS HERRERAS**A TALDEA. Sindikatuen Erakunde edo Konfederakundeek izendatuak**

Titularrak	Ordezkoak
MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ	JULENE GABIOLA AMALLOBIETA
EDUARDO GARCÍA ELOSUA	JAIME GÓMEZ DEVESA
CARLOS TREVILLA ACEBO	RAÚL ARZA VÉLEZ
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ	OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA

B TALDEA. Confebask Euskal Enpresa Konfederakundeak izendatuak

Titularrak	Ordezkoak
VIRGINIA MÚGICA CONDE	AITOR OTAOLA DÍEZ DE ALADA
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO	EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO

C TALDEA. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate eta elkarte bakoitzetik, hauek

Titularrak	Ordezkoak
JUAN LUIS MTNEZ. ORDORICA	JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA
OLATZ JAUREGUIZAR UGARTE	JON ARIÑO GALLEGO
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA	UNZALU SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA
PEDRO MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO	JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN

D TALDEA. Adituak

Titularrak	Ordezkoak
RAFAEL PUNTONET DEL RÍO.	M. ^a LUZ DE LA CAL BARREDO
ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA	FELICÍSIMO AYASTUY SÁEZ
JOSÉ M. ^a URANGA AYESTARÁN	ANTÓN BORJA ÁLVAREZ



2.3. EKONOMI GARAPENA AZTERTZEKO BATZORDEA (2006)

Lehendakaria

Batzorde bakoitzean izendatzen da.

A TALDEA. Sindikatuen Erakunde edo Konfederakundeek izendatuak

Titularrak

JULENE GABIOLA AMALLOBIETA
ANTXON TOMASENA ALZURI
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ
CARLOS TREVILLA ACEBO

Ordezkoak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ
EDUARDO GARCÍA ELOSUA
OIHAN OSTOLAZA ARRUABERRENA
RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA. Confebask Euskal Enpresa Konfederakundeak izendatuak

Titularrak

EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO
AITOR OTAOLA DÍAZ DE ALDA
JON BILBAO SARALEGUI

Ordezkoak

JUAN ANTONIO MUGURUZA GOIRI
ANA GARCÍA POLANCO
VIRGINIA MÚGICA CONDE

C TALDEA. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate eta elkarte bakoitzetik, hauek

Titularrak

JUAN LUIS MARTÍNEZ ORDORICA
JON ARIÑO GALLEGU
JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN
PEDRO MARTÍNEZ DE ALEGRÍA PINEDO

Ordezkoak

M.^a ASUNCIÓN BELAMENDIA AMEZAGA
KOLDO NABASKUES SIMÓN
MIREN GARMENDIA ZEBERIO
RAFAEL ARANGUREN ILLARDIA

D TALDEA. Adituak

Titularrak

ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA
ANTÓN BORJA ÁLVAREZ

Ordezkoak



2.4. GIZARTE GARAPENA AZTERTZEKO BATZORDEA (2006)

Lehendakaria

Batzorde bakoitzean izendatzen da.

A TALDEA. Sindikatuen Erakunde edo Konfederakundeek izendatuak

Titularrak	Ordezkoak
BIZENTE HARRIOLA ALBIZU	ITZIAR GABIKAGOGEASKOA ARRASATE
FELISA PIEDRA GAO	JAIME GÓMEZ DEVESA
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ	OIHAN OSTOLAZA ARRUBARRENA
CARLOS TREVILLA ACEBO	RAÚL ARZA VÉLEZ

B TALDEA. Confebask Euskal Enpresa Konfederakundeak izendatuak

Titularrak	Ordezkoak
JON BILBAO SARALEGUI	JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO
VIRGINIA MÚGICA CONDE	RAQUEL ECENARRO DEL RIO

C TALDEA. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate eta elkarte bakoitzetik, hauek

Titularrak	Ordezkoak
OLATZ JAUREGUIZAR UGARTE	JOSÉ HERNÁNDEZ DUÑABEITIA
UNZALU SALTERAIN BESAGUTXIBEASKOA	ALFREDO MONTOYA ESTIBALEZ
JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA	MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA	JAVIER SALABERRIA AMESTI

D TALDEA. Adituak

Titularrak	Ordezkoak
M. ^a LUZ DE LA CAL BARREDO	
ISABEL OTXOA CRESPO/ AITOR BENGOETXEA ALKORTA	



2.5. MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEAREN OSAERA (2006)

Lehendakaria

Batzorde bakoitzean izendatzen da.

A TALDEA. Sindikatuen Erakunde edo Konfederakundeek izendatuak

Titularrak

MIKEL NOVAL FERNÁNDEZ
ANTXON TOMASENA ALZURI
RAFAEL IZQUIERDO SÁNCHEZ
RAÚL ARZA VÉLEZ

Ordezkoak

JULENE GABIOLA AMALLOBIETA
EDUARDO GARCÍA ELOSUA
OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA
CARLOS TREVILLA ACEBO

B TALDEA. Confebask Euskal Enpresa Konfederakundeak izendatuak

Titularrak

EDUARDO ARÉCHAGA CILLERUELO
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO

Ordezkoak

JUAN ANTONIO MUGURUZA GOIRI
AITOR OTAOLA DÍAZ DE ALDA

C TALDEA. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate eta elkarte bakoitzetik, hauek

Titularrak

RAFAEL ARANGUREN ILLARDIA
JUAN PABLO RODRÍGUEZ-SAHAGÚN
JUAN HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA
FCO. JAVIER SANZ SANTAOLALLA

Ordezkoak

PEDRO MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO
MIREN GARMENDIA ZEBERIO
MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN
JAVIER SALABERRIA AMESTI

D TALDEA. Adituak

Titularrak

FELICÍSIMO AYASTUY SÁEZ
ANTÓN BORJA ÁLVAREZ
IGNACIO BARRENECHEA GONZÁLEZ
M.ª LUZ DE LA CAL BARREDO

Ordezkoak

Batzordeko Idazkari Teknikoa

ARANTZA UNZURRUNZAGA and.



2.6. AKITANIAREKIN TURISMO ARLOAN LANKIDETZAN JARDUTEKO LAN-TALDEAREN OSAERA (2006)

Lehendakaria

Batzorde bakoitzean izendatzen da.

A TALDEA. Sindikatuen Erakunde edo Konfederakundeek izendatuak

Titularrak	Ordezkoak
KEPA ESTÉVEZ SÁNCHEZ.	
ROBERTO BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA	
RAÚL ARZA VELEZ	

B TALDEA. Confebask Euskal Enpresa Konfederakundeak izendatuak

Titularrak	Ordezkoak
FELICÍSIMO AYASTUY SÁEZ	
JAIME FERNÁNDEZ ALCEDO	

C TALDEA. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate eta elkarte bakoitzetik, hauek

Titularrak	Ordezkoak
TERESA QUEREJAZU	

Batzordeko Idazkari Teknikoa

ARANTZA LÓPEZ DE MUNAIN ZULUETA and.

3. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Bartzordearen organoek 2006an egindako bilkuren laburpena

3.1. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO OSOKO BILKURAK 2006AN EGINDAKO BILKURAK

2006ko otsailak 8

- Aldez aurretik Osoko Bilkurari aurkeztu zaio eta onartu egin da presidentearen proposamena, hain zuzen ere, aztergaien zerrendan beste puntu bat gehitzea hurrengo irizpen proiektu hau eztabaidatu eta onartzeari buruz: «Lurzoruaren kalitatea Ikertzeko eta Lehengoratzeko erakundeak ziurtatzeari buruzko Dekretuaren Aurreproiektua».
- Abenduaren 23ko akta aho batez onartu da.
- Aho batez onartu da lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko erakundeak ziurtatzeari buruzko Irizpen Proiektua.
- Batzordekideen ordainsariak berrikusteko proposamena eztabaidatu eta onetsi da.
- Lehenengo eztabaida antolatzeari buruzko informazioa. EGABetik kanpoko hizlarien partaidetza izango duten eztabaiden helburu nagusiak azaldu dira (hizlariak EAekoak zein beste herrialde batzuetakoak izan daitezke). Eztabaidak etorkizuneko gaiei buruzkoak izango lirarteke, eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Bartzordearen barne eztabaidarako balioko lukete, batzordekideek hala erabakiko balute. Prozedura orokorra azaldu ondoren, jakinarazi da hauxe izango dela lehenengo eztabaida, Unzalu Salterainek proposatuta: «Nekazaritza politika Euskal Herrian».
- Presidenteak eta a), b) eta c) taldeetako ordezkariak egindako batzarrei buruzko informazioa eman du, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Bartzordearen funtzionamendua hobetzeari buruz. Batzarretan bi gai planteatu zirela aipatu du: Eztabaidak antolatzea, eta beto eskubidearen gaineko zehaztapenak.
- Batzordekideak era ez-ofizialean batzartzea erabaki da, irizpenen lanketaren dinamizazioa eztabaidatzeko eta horren gainean hausnartzeko era monografiko eta ez-binkulante batean, batzarrean zein jarrera azaltzen den jakin ahal izateko, eta, horren arabera, Batzorde Iraunkorrak proposamen zehatzak egin ahal izateko.
- Lehendakariaren informazioa.

2006ko apirilak 26

- 2006ko apirilaren 8ko batzarreko akta onartu da.
- EAeko Enpleguari buruzko Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpen proiektua bozkatu da. LABena izan ezik beste batzordekide guztien aldeko botoa izan du; LABek ezezko botoa eman du, boto partikular bat emango duela jakinarazi du, irizpenari gehituko zaiona; Irizpen Proiektua onartu egin da.
- Batzordearen egoitza aldatzeari buruzko erabaki proposamena onartu da. Eusko Jaurlaritzari, eta, zehazki, Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain lehendakariordeari, erabakitako gai batzuen inguruko gutun bat bidaltzea erabaki da.
- RTAren agiri hauek bozkatu dira, «Portuak eta hinterlandak: intermodalitatea merkantzien garraiorako Eremu Atlantikoan» eta «Teknologia eta berrikuntza transferentzia: lankidetzarako giltzarriak Arku Atlantikoko eskualdeetarako». Lehenengo dokumentua batzordekide guztien aldeko botoarekin onartu da, LABena izan ezik, abstenitu egin baita; bigarrena aho batez onartu da.
- Presidenteak jakinarazi duenez, Sareko kide batzuek aurrera egin nahi dute, baina jakin barik berredizio bat finantzatzeko ote den; eta RTAren gaur egungo presidenteak azertu egingo du presidentearen agintaldiaren iraupena urte betetik lau urtera luzatzeko aukera.
- Akitaniako Eskualdeko Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordearekin bitariko lankidetzatik sortutako turismoari buruzko laburpen txostena. Txotena batzordekide guztien aldeko botoarekin onartu da, LABena izan ezik, abstenitu egin baita.
- Presidenteak informazioa eman du Gizarte Garapenerako Batzordearen proposamenari buruz, hain zuzen ere, irizpenik ez ematea Lan, Justizia eta Gizarte Segurantzako agindu-proiektu biri gainean.

2006ko ekainak 6

- Ez da onartu 2006ko apirilaren 26an egindako Ohiko Osoko Bilkuraren akta. Izan ere gaur egungo testuaren aurka azaldu da CONFEBASK, eta horregatik akta ezin izan da onartu, baina bai onartu dira egun horretan egindako Osoko Bilkuran hartutako erabakiak. Idazkari nagusiak berriro idatziko du akta, eta kontuan izango ditu oraingo batzarrean azaldutako ñabardurak eta gogoetak, eta testu berria hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko du.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen jarduera jakin batzuk arautzeko Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Proiektua aurkeztu da, onar dadin. Irizpen Proiektu hori onartu egin da, kontrako boto batekin, Javier Sanzena.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen bitartez antolatutako gizarte aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko bideratutako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Proiektua aur-

keztu da, onar dadin. Baztertu egin da LABek aurkeztutako osoko zuzenketa, eta Irizpen Proiektua onartu egin da. LABeko Rafa Izquierdok boto partikularra aurkeztuko duela esan du, onartutako irizpenari gehituko zaiona.

- Auditoria Txostena eta Batzordearen 2005eko ekitaldiko Aurrekontuaren Liki-dazioa bozkatu dira. Aho batez onartu dira.
- Lehendakariaren informazioa.

2006ko urriak 25

- Apirilaren 26ko eta ekainaren 6ko aktak aho batez onartu dira.
- 2005eko Jardueren Memoria bozkatu da, eta aho batez onartu da.
- 2005eko Memoria Sozio-ekonomikoa bozkatu da, eta aho batez onartu da.
- Etxebizitzako Plan Zuzendariari (2006-2009) buruzko irizpen proiektua onartzea, hala badagokio. Eztabaidatu ondoren, testu osoa bozkatu da, eta onartu egin da, aurkako boto bakar batekin, ELArena (iragarri du boto partikularra aurkeztuko duela txostenari gehitzeko); ez da abstentziorik egon.
- Idazkari nagusiak EGABen lokal berriak bilatzeko egiten ari diren gestioen berri eman du.
- Enpresen Gizarte Erantzukizunari buruzko eztabaida prestatzea.
- Lehendakariaren beste informazio batzuk.

2006ko abenduak 19

- Urriaren 25eko akta aho batez onartu da.
- Seme-alabak dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Proiektua aurkeztu da onar dadin. ELAk aurkeztutako zuzenketa onartu ondoren, Irizpen Proiektuaren testu berria bozkatu eta aho batez onartu da.
- Gizarte Aurreikuspenarako Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu Proiektua bozkatu da. Ez da onartu LABek aurkeztutako osoko zuzenketa, eta ELAk aurkeztutako zuzenketa partziala onartu da. Irizpen Proiektu berria onartu da, LABen aurkako botoarekin; LABeko ordezkariak adierazi du boto partikularra aurkeztuko duela.
- Batzordearen ekimeneko azterlan hau aurkeztu da: Gizarte babesa EBeko eta EAEko gizarte politikaren funtsezko elementu gisa. Langabezia eta gizarte bazterketa funtzioen kasu berezia». Ez da onartu ELAk aurkeztutako zuzenketa, eta Batzordearen Ekimeneko Azterlana osorik bozkatu da; onartu egin da ELAren kontrako botoarekin. Mikel Novalek adierazi du ELAk boto partikularra aurkeztuko duela.
- 2007ko Aurrekontuen Proiektua eztabaidatu eta bozkatu da. Aho batez onartu da.



2006ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuraren irudia

- Idazkari nagusiak EGABen lokal berriak bilatzen ari direla-eta egindako gestioen berri eman du.
- Lehendakariaren informazioa.
- EGABek jaso duen irizpen eskaeraren berri eman da: «Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko erakundeen ziurtapenari buruzko dekretua».



3.2. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO BATZORDE IRAUNKORRAK 2006AN EGINDAKO BILKURAK

2006ko urtarrilak 12

- Aurreko batzarreko akta onartu da, zati bat izan ezik; berriz idatzi eta hurrengo batzarrean aurkeztuko da, onar dadin.
- EGABeko kideen urteko ordainsarien eta asistentziengatikiko dieten gaineko eztabaida eta erabakiak hartzea. Proposamen hau Osoko Bilkuran aurkeztea erabaki da:

—Ordainsariak ordaintzeari buruz indarrean dagoen erabakia berrikustea, eta horretarako KPIren arabera urtero automatikoki berrikusteko klausula bat sartuta.

- Honako erabakia hartu da: EGABek egiten dituen lanen alorrean adituek egiten dituzten batzarrak Batzordearen batzarrak balira bezala ordaintzea, nahiz eta izaera formalik ez izan.
- Nekazaritza Politikari buruzko eztabaida bat antolatzea, C taldeko batzordekide den Unzalu Salterainek antolatuta.
- Lehendakariaren informazioa. Jakinarazi da PSEk presidentearen agerraldia eskatu duela Legebiltzarrean, EGABek dituen funtzionamendu arazo berri emateko.

2006ko apirilak 4

- Batzorde Iraunkorrek 2006ko urtarrilaren 12an egindako batzarraren akta onartzea, bai eta 2005eko arazoaren 25eko aktaren zatia.
- Jasotako azken irizpen eskaeren egoera.
- Egoitza aldaketaren egoerari buruzko informazioa.
- Langile berrien kontratazioa betearaztea, aurrekontuan jasota dagoen bezala.
- RTAren txostenak eta Akitaniarekin garatutako lankidetzaz aztertzea eta horren gaineko oharrak aurkeztea. Azterlana Osoko Bilkurari aurkeztea erabaki da, onar dezan.
- Turismoari buruzko lana onartzea, Osoko Bilkurari aurkezteko.
- Osoko Bilkura deitzeko aurreikuspena. Hurrengo Ohiko Osoko Bilkura apirilaren 26rako deitzea erabaki da.

2006ko maiatzak 17

- Batzorde Iraunkorrek 2006ko apirilaren 4an egindako bilkuraren akta irakurtzea eta onestea.
- RTAren etorkizuna. Euskadiko EGABek hartuko duen jarrera eztabaidatzea eta zehaztea. Ohar bat idaztea erabaki da, Batzordeak puntu honen gainean duen jarrera finkatzeko. Bertan honako hau jasoko da:
 - RTAren helburuen betetze-mailari buruzko informazioa behar da, erakunde horren funtzionamendua ebaluatu ahal izateko.
 - Ebaluazioa beharrezkoa izango da etorkizun bateko helburuak eta lan ildoak zehaztu ahal izateko.
 - RTAn urte betez jarraitzea proposatu da; epe horretan, lanik garrantzitsuena egindakoa ebaluatzea izango da eta jarduketa-oinarri sendo bat izatea ondo zehaztutako helburuen arabera.

- CRPM, Arku Atlantikoko Batzordea eta holako erakundeekin lotura edo koordinazio harremanak jartzeari buruzko erabakirik ez hartzea proposatu da.
- Batzorde Iraunkorra ez da azterlan berriak hastearen aldekoa, eta jarduera lehendik egindako azterlanen osagarriak lantzerantz mugatzea proposatu da.
- Bi aldeko lankidetzaren Euskadiko EGAB-Akitaniako Eskualdeko EGAB: Lehendik egindako turismoaren gaineko baterako lana osatzea proposatu da. Garraioan dauden oztopo praktikoak ondasunen eta pertsonen zirkulaziorako. Akitaniako Eskualdeko EGABen proposamena onartu da, hain zuzen ere, batera lan egiten jarraitzea.
- Aurreikusitako Ohiko Osoko Bilkurara irizpen proiektu biak eramatea proposatzen da, 2005eko ekitaldiko auditoriaren likidazioak eta txostena onartzeko.

2006ko uztailak 5

- Rafa Izquierdo jaunak eskatuta, esaldi bat kendu da berak esandakotik, eta hori eginda onartu egin da 2006ko maiatzaren 17ko Batzorde Iraunkorrek egindako batzarren akta.
- EGABen lokalen alokairu kontratuaren eta egoitza aldatzeko proposamenen egoera. Hauxe erabaki da:
 - Alokairua garestia denez, egungo lokaletan jarraitzea beste loki bat bilatu arte.
 - EGABen egoitza berrirako erarik onena lokal berriak jabetzan eskuratzea da.
 - 5. solairuarekin ez jarraitzeko aukera proposatuko zaio INBISARI.
- Lan, Justizia eta Gizarte Segurantzako sailburuak bidalitako gutunaren gaineko eztabaida, hain zuzen ere, EGABen Legearen 10. artikulua aplikatzeari buruzkoa.
- Batzorde Iraunkorra uztailaren 20rako deitzea erabaki da.

2006ko irailak 29

- Julene Gabiola andreak berak esandakoan esaldi bat aldatzeko eskatu du, bai eta Virginia Múgica andreak; horrela paragrafo hori berriz idaztea erabaki da eta aktako 3. puntua onartu gabe uztea erabaki da. Aktaren gainerako testua onartu da.
- EGABen dauden ordainsarien kausistika.
- 2005eko Jardueren Memoria aztertzea eta onartzea.
- Irizpenen eta Batzordearen Ekimenez egindako azterlanen berri berriena. Presidenteak honako proposamena egin du: Industria Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planari (2006-2009) buruzko irizpena egiteko aukera berriz aztertzea. Ez da erabakirik hartu horri dagokionez.

- EGABen administrazio-egoitza berria bilatzeari buruzko informazioa.
- Bi data jarri dira urriaren 18a eta 25a, Osoko Bilkura egiteko, baldin eta noiz onartzen den 2005eko Memoria Sozio-ekonomikoa.

2006ko abenduak 5

- 2006ko irailaren 29ko aktari bi zuzenketa egin eta gero, akta aho batez onartu da.
- Gogoeta estrategiko bati ekitea, bai eta horri dagokion Kudeaketa Planari. Eztabaidatu ondoren, hauxe erabakia da: egoki irizten dioten kide guztiek bidal diezaiotela gogoetagai izan daitezkeen gaien proposamenak presidenteari eta idazkari nagusiari, jarduketa proposamena bat egiteko.
- EGABen lokalen egoera.
- Ohiko Osoko Bilkura 2006ko abenduaren 19an deitzea erabaki da.
- Lehendakariaren informazioa. Aitor Bengoetxea batzordekide berria izendatu da ofizialki, Isabel Otxoaren ordez.

30

3.3. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEKO LAN-BATZORDEEK 2006AN IZANDAKO JARDUERA

EKONOMIA GARATZEKO BATZORDEA

2006ko urtarrilak 18

- Anton Borja jauna jardungo da lehendakari gisa.
- Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko erakundeak ziurtapenari buruzko Dekretuaren Aurreproiektuari buruz emandako Irizpenaren Aurreproiektua aztertu eta eztabaidatu da.
- Batzordeak Irizpenaren Aurreproiektua onartzea erabaki du, baina aldaketak egingo da. Epe bat eman da, bidalitako testuen desadostasunak zein diren adierazteko.
- Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko erakundeen ziurtapenari buruzko Dekretuaren Aurreproiektuari buruz emandako Irizpenaren Aurreproiektua onartutzat eman da.

2006ko martxoak 17

- Anton Borja jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko urtarrilaren 18an egin zen bileraren akta onetsi da.
- EAeko Enpleguari buruzko Legearen Aurreproiektuaren gainean emaniko Irizpen Aurreproiektua aztertu eta eztabaidatu da.



- Irizpen aurreproiektuaren testu berria idaztea erabaki da.
- Hurrengo batzarra martxoaren 30en egitea erabaki da, Batzordeko idazkariak idatziko duen Irizpen aurreproiektu berria eztabaidatzeko.

2006ko martxoak 30

- Pedro Martínez de Alegria jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko martxoaren 17an egin zen bileraren akta onetsi da.
- EAEko Enpleguari buruzko Legearen Aurreproiektuaren gainean emaniko bigarren Irizpen Aurreproiektua aztertu eta eztabaidatu da.
- Batzordeak beste testu bat bidaltzea erabaki du, onartutako aldatetekin. Epe bat zabaldu da hirugarren Irizpen Aurreproiektu horren gaineko iradokizunak bidaltzeko, eta Batzorde Iraunkorrera eraman da.
- Batzordeko kideek onartutzat eman dute Irizpen Aurreproiektua.

2006ko ekainak 9

- Eduardo Aréchaga jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko martxoaren 30ean egin zen bileraren akta onetsi da.
- Industria Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planari buruzko Irizpen Aurreproiektuari buruzko deliberazioak hasi dira.

- Planaren Edukia azaltzen duen epigrafea laburtzea erabaki da.
- Epe bat zabaldu da aldaketa/ moldaketa eskaerak bidaltzeko.
- Hurrengo batzarra ekainaren 21ean egitea erabaki da.

2006ko ekainak 21

- Julene Gabila andrea jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko ekainaren 9an egin zen bileraren akta onetsi da.
- Industria Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planari buruzko Bigarren Irizpen Aurreproiektuari buruzko deliberazioak hasi dira. Gai batzuk geratu dira, eta horien gaineko erabakia hartu behar da.
- Hurrengo batzarra uztailaren 6an egitea erabaki da.

2006ko uztaileak 6

- Rafa Izquierdo jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko ekainaren 21ean egin zen bileraren akta onetsi da.
- Industria Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planari buruzko Hirugarren Irizpen Aurreproiektuari buruzko deliberazioak hasi dira.
- Ez da inolako kontsentsurik lortu horri dagokionez, eta Batzordeak epe bat uztea erabaki du Hirugarren Aurreproiektu hori lantzeko.
- Hurrengo batzarra uztailaren 17an egitea erabaki da.

2006ko uztailak 17

- Antxon Tomasena jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko uztailaren 6an egin zen bileraren akta onetsi da.
- Industria Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planari buruzko Hirugarren Irizpen Aurreproiektuari (zuzenketekin) buruzko eztabaida.
- Aurreproiektuak puntu kritikoak dituzenez, lan metodologia bat erabaki da. Puntu batzuk aztertu dira, eta beste batzuk beste eztabaida batean aztertzeko utzi dira.
- Merkataritza-establezimendu handiak ezarri, aldatu eta handitzeari buruzko 58/2001 Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Eduardo Aréchagak adierazi du bere erakundeak jakinarazi diotela Lan Batzordeak esku artean duen Dekretu Proiektuaren gaineko bertsioa baino bertsio aurreratuagoak daudela. Batzordeko idazkariak azaldu duenez, data hori baino geroago dokumentazioa eta datuak lortzeko Sailarekin izan diren kontaktuetan, Sailak ez du jakinarazi agiriaren beste bertsiorik dagoenik. Horrela, idazkariak dagozkion gestioak egingo dituela esan du egoera argitu ahal izateko.
- Hurrengo batzarra uztailaren 21ean egitea erabaki da.

2006ko uztailak 21

- Jon Ariño jardungo da lehendakari gisa.
- Rafa Izquierdok eskatuta, aldaketa bat egin da 2006ko uztailaren 17an egindako aktan.
- Industria Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntza Planari buruzko Laugarren Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Alderdi batzuen gaineko testua idaztea planteatu da.
- Merkataritza-establezimendu handiak ezarri, aldatu eta handitzeari buruzko 58/2001 Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuaren gaineko Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Sailak proiektu Dekretuaren azken testua bidaltzeko eta EGABen arauzko prozedura abiatzeko zain geratuko dira, epe bat zabalduz Osoko Bilkurako kide guztiek iritziak eta gogoetak presta ditzaten.

2006ko urriak 9

- Carlos Trevilla jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko uztailaren 21ean egin zen bileraren akta onetsi da.
- Merkataritza-establezimendu handiak ezarri, aldatu eta handitzeari buruzko 58/2001 Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Kide batzuek hitz egin eta gero, Batzordeko kideak ados agertu dira Confebask-ek egindako planteamenduekin, eta Confebask-en oharrak eta jarrerak aurretiaz bidaltzea erabaki da, hau da, batzarra egin baino lehen, Batzordeko gainerako kideek irizpidea moldatzeko aukera izan dezaten.
- Batzordeko kideak egoki iritzi diote EGABeko presidenteak zuzendutako gutunari buruz duten iritzia adierazteari (gutun hori Lehiakortasun Planaren gaineko lanei buruzkoa da).
- Hurrengo batzarra urriaren 17an egitea erabaki da.

2006ko urriak 17

- Rafa Izquierdo jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko urriaren 9an egin zen bileraren akta onetsi da.
- Merkataritza-establezimendu handiak ezarri, aldatu eta handitzeari buruzko 58/2001 Dekretua aldatzeko Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Batzordeko presidenteak amaiera eman dio eztabaidari, ez dagoelako negoziazio aukerarik Irizpenaren testuaren gaineko erabakirik hartu ahal izateko.
- Egun bat jarri da azterlanaz arduratzen den aholkularitzak EAEn garapen iraunkor osatu baterako estrategia bat egiteko jarraibideen definizioa aurkez dezan.

EKONOMIA GARATZEKO BATZORDEA

2006ko otsailak 24

- Oihan Ostolaza jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2005eko azaroaren 30eko akta onartu da.
- Batzordea bi zatitan egin da. Lehenengoa: BABES SOZIALA EBko ETA EAeko GIZARTE POLITIKAREN FUNTSEZKO ELEMENTU GISA Batzordearen Ekimenez egindako azterlanaren IV. Kapituluaren bertsio berriaren gaineko deliberrazioak hasi dira, erabaki batzuk hartu ahal izateko eta gogoeta egiteko.
- Azkenean, honako erabaki hau hartu da: Batzordeko kide bakoitzak bidal diezazkiola bere iritzia Batzordeko idazkariari, behin betiko testua idatzi ahal izateko.
- Batzorde honen bigarren zatian, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren Agindu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da, hain zuzen ere, laneko arriskuen prebentzioaren alorrean arau-hauste oso larriak egiteagatiko zehapenei publizitatea ematea erabakitzen duena. Hori baino lehen, eztabaidatu egin da egokia ote den Euskadiko EGABek Agindu Proiektuei buruzko irizpenak ematea, horren funtzioak irizten dituen Legea aztertuta dagoenean.
- Hainbat iritzi entzunda eta Batzordeko idazkari nagusiari eztabaidagaiari buruzko kontsulta eginda, Lan Batzordeak Irizpena lantzen jarraitzea erabaki du.
- Ez daudenez ados Irizpen Aurreproiektuaren «II. Neurriaren urritasuna» puntuarekin, Batzordeak erabaki du ezin dela Agindu Proiektuaren gaineko Irizpenik eman.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren Agindu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua eztabaidatu da, hain zuzen ere, Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 20. artikulua d) letraren zioz kontratatze debekua adierazpenaren aurreko espedienteari publizitatea ematen diona.
- Irizpen Aurreproiektu osoa berriz aztertuta eta desadostasuna dagoenez «I. Arauaren egokitasunari buruzko aurretiko oharra» puntuari dagokionez, Batzordeak erabaki du ezin dela Agindu Proiektuaren gaineko Irizpenik eman.

2006ko martxoak 15

- Unzalu Salterain jauna jardungo da lehendakari gisa.
- Martxoaren 24ko akta onartu da, Confebask-ek egindako ohar txiki batekin.
- BABES SOZIALA EBko ETA EAeko GIZARTE POLITIKAREN FUNTSEZKO ELEMENTU GISA Batzordearen Ekimenez egindako azterlanaren IV. Kapitu-

luaren bertsio berriaren gaineko deliberazioekin jarraitu da. Hainbat ohar egin zaizkio eta zenbait erabaki hartu da.

- Honako erabaki hau hartu da: Batzordeko kideak harremanetan jar daitezela Idazkaritza Teknikoarekin iritziak ezagutarazteko, gero, Ondorioen kapitulua idatzi ahal izateko.

2006ko maiatzak 12

- Olatz Jauregizar andrea jardungo da lehendakari gisa.
- Mikel de la Fuentek zuzenketa bat egin nahi dio martxoaren 15eko aktari, 96. orrialdean, gizarte kotizazioen puntuari. Gai hori bere horretan utzi da Batzordea berriro batu arte, Batzordearen Ekimenez egindako Gizarte Politikei buruzko lan berria aztertzeke.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek jarduera jakin batzuk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua aztertu da. Kideen iritziak entzunda, Batzordeko presidenteak Irizpena paragrafoz paragrafo irakurtzea proposatu du, horrela, Batzordeko kideek adierazitakora moldatu ahal izateko.
- Erabaki batzuk hartu dira eta bi Irizpen Aurreproiektu alternatibo idaztea proposatu da.
- Datorren maiatzaren 19an batzartzea erabaki da, Irizpen aurreproiektu bata edo bestea aukeratzeko.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek bitartez antolatutako gizarte aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko bideratutako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua aztertu da.
- Kideen iritziak entzunda, Batzordeak maiatzaren 19an beste batzar bat egitea erabaki du, Batzordeko idazkariak idatziko duen irizpen aurreproiektu berria eztabaidatzeko.

2006ko maiatzak 19

- M.^a Luz de la Cal andreak presidente lanak egitea erabakia da .
- Aurreko batzarreko akta onartzea erabaki da, baina Virginia Múgicak eta Juan Hernándezak egindako bi aldaketekin.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek jarduera jakin batzuk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruz emaniko bi Irizpen Aurreproiektu berriak aztertu dira, bertsio laburra edo luzea aukeratzeko.
- Batzarrean dauden kideen iritziak entzun dira, eta Batzordeko presidenteak irizpenaren bertsio laburra aukeratzeko erabaki du.

- Batzordeko kide guztiek Irizpen Aurreproiektu honen alde bozkatu dute, lehen-dik sartutako aldaketekin, Fco. Javier Sanzek izan ezik, aurkako boto eman baitu. Beraz, Irizpen Aurreproiektua onartu egin da.
- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen bitartez antolatutako gizarte aurreikuspen osagarriko sistema jakin batzuk ezartzeko bideratutako dirulaguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektua berria aztertzea.
- Batzarrean dauden kideen iritziak entzun dira, eta hainbat erabaki hartu da irizpen proiektu berria egin ahal izateko.
- Irizpen Aurreproiektu berri hau onartu da. Juan Hernándezek adierazi nahi izan du Irizpen hau tramitatu ahal izateko eman duela aldeko botoa, bestela abstenitu egingo zela.

2006ko ekainak 2

- Olatz Jauregizar andrea jardungo da lehendakari gisa.
- Maiatzaren 16ko batzarraren akta onartu da.
- OSALAN-Laneko Seguritasun eta Osasunerako Euskal Institututuko langile teknikoek enpresa eta lan-tokietako seguritasun eta osasun baldintzak ziurtatzeko duten gaitasunaren eta erabilitako antolaketaren baldintzak eta prozedura arautzen dituen Dekretu Proiektua aztertzen hasi da.



- Batzordeko kideen iritzia entzunda, Irizpen Aurreproiektu berriaren bozketa egin da eta Irizpenik ez ematea erabaki da.
- Lehenengo semea edo alaba izateagatiko edo adoptatzeagatiko diru-laguntza arautzen duen Dekretu Proiektua aztertu da.
- Arantza Unzurrunzagak azaldu duenez, Eusko Jaurlaritzak onartu du Dekretu hau, eta Saitetik adierazi diote azkar onartu behar izan dutela presa handia izan dutelako, eta, gainera, Euskadiko EGABek irizpena emateko arauz izan duen epea igaro dela. Beraz, une honetan gai nagusia irizpena ematea edo ez ematea da.
- Lan Batzordeko kide guztiak irizpena ez ematearen aldekoak dira; akta hau Batzorde Iraunkorrari edota Osoko Bilkurari aurkeztuko diote, kexari buruzko jarrera bat har dezan Eusko Jaurlaritzari dagokionez.

2006ko ekainak 7

- Mikel de la Fuente jauna jardungo da lehendakari gisa.
- «Babes Soziala EBko eta EAeko Gizarte Politikaren funtsezko elementu gisa» Batzordearen Ekimenez egindako azterlanaren IV. Kapituluaren bertsio berriaren gaineko deliberazioekin jarraitzea eta IV. Kapituluari, Ondorioak eta Azken gogoetak, buruzko deliberazioekin hastea. Hainbat proposamen egin zaizkio eta zenbait erabaki hartu da.
- Ekainaren 28ko batzarrean berriro ere lan horiei ekitea erabaki da.

2006ko ekainak 28

- Jon Bilbao jardungo da lehendakari gisa.
- «Babes Soziala EBko eta EAeko Gizarte Politikaren funtsezko elementu gisa» Batzordearen Ekimenez egindako azterlanaren IV. Kapituluaren bertsio berriaren gaineko deliberazioekin jarraitzea eta IV. Kapituluari, Ondorioak eta Azken gogoetak, buruzko deliberazioekin hastea.
- Pendiente dauden gaiak eta eskatutako datuei buruzko egoera erreparatu dira.
- Hainbat proposamen egin zaizkio eta zenbait erabaki hartu da.
- Hurrengo batzarra irailaren 15ean, ostirala, egitea erabaki da, goizeko 10etan. Batzar horretan dokumentu osoa ikusiko da (azken erabakiak direla-eta berrikusi beharreko puntuak ilunago markatuta agertuko dira); eta Eranskinari buruzko deliberazioak hasiko dira.

2006ko irailak 15

- Isabel Otxoa andrea jardungo da lehendakari gisa.
- Ekainaren 28ko akta onartu da, pendiente dagoen M.^a Luz de Calen ohar batekin.

- Azken Dokumentuan (IV. eta V. Kapituluak) adostutako aldaketak egiaztatzea eta Eranskinari buruzko deliberazioak egiten hastea.
- Dokumentu osoaren botazioa; dokumentua onartu egin da, Mikel de la Fuente-ren aurkako botoarekin.
- Batzarrean dauden kideek berriro irakurtzeko epe bat hartzea erabaki dute; eta horren gaineko eragozpenik ez badago, onartu egingo da.

2006ko urriak 6

- Raúl Arza jauna jardungo da lehendakari gisa.
- Fco. Javier Sanzek eskatuta egindako aldaketa txiki batekin, aurreko batzarraren akta onartu da.
- Etxebizitzari buruzko Plan Zuzendariaren (2006-2009) zirriborroaren gaineko Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Lehenengo eta behin zerbitzu teknikoek egindako irizpen Aurreproiektuaren balorazio erronda bat egin da, bai eta Irizpena ematea egokia ote den, Eusko Jaurlaritzak Etxebizitzari buruzko Plan Zuzendaria eginda duenean.
- Erronda horren ostean, Irizpen Proiektua emateko lanekin aurrera egingo den ala ez bozkatu da. Batzordeak Etxebizitzari buruzko Plan Zuzendariaren (2006-2009) gaineko Irizpen Proiektua egiten jarraitzea erabaki du; horren aurrean, Julene Gabiolak jakinarazi du berak ordezkatzan duen erakundeak ez duela parte hartuko irizpen horren lanketan, uste du ez litzatekeela egin behar, eta batzarretik joan egin da.
- Urriaren 2an Lan Batzordeko kideei bidalitako Irizpen Aurreproiektuaren «Oharrrak» atalari buruzko eztabaida.
- Aldaketa batzuk egin zaizkio, eta horren ostean batzarrean daudenak honako erabakia hartu du: Idazkaritza Teknikoak berrikus dezala Irizpen Aurreproiektuaren gainerako testua, hartara, Irizpenaren gaia den testuaren sintesiaren zatia zein Ohar Espezifikoa urriaren 3an Gobernu Batzordeak onartutako Etxebizitzari buruzko Plan Zuzendariarekin bat etor daitezen, eta ez Etxebizitza Sailak Euskadiko EGABi bidalitako Zirriborroarekin.

2006ko urriak 17

- Raúl Arza jauna jardungo da lehendakari gisa.
- Irailaren 15eko akta onartu da, urriaren 6ko lan batzarrean aztertu zen edukiarekin.
- 2006ko urriaren 6ko batzarrean izan ziren akats formalak zuzentzea; horretarako, batzar horretako Akta aztertu da, bertan jasotako erabakiak berresteko. Aldaketak eginda, Akta onartu egin da, eta bertan jasotako erabakiak berretsi egin dira.

- Etxebizitzari buruzko Plan Zuzendariaren (2006-2009) gaineko Irizpen Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Horren ostean, Batzorde honek honako erabakia hartu du: aipatutako testua Etxebizitzari buruzko Plan Zuzendariaren gaineko Txosten Proiektu gisa (ez Irizpen Proiektu gisa) aurkeztea EGABen Osoko Bilkurari, orain egileak, hau da, Etxebizitza eta Gizarte Saitetako Sailak, ez duelako Plan hori aldatzeko aukerarik. Txosten hori onartuta, Osoko Bilkurari eskatuko zaio bidal diezaiola Eusko Jaurlaritzari zein Eusko Legebiltzarrari. Lehenengo kasuan, Batzorde honetan adostutako Oharrak kontuan har daitezzen Plana aplikatzerakoan, indarrean dagoen bitartean; eta bigarren kasuan, Legebiltzarraren ordezkaritza duten taldeek jakin dezaten, egoki irizten diotenerako, Plan horren gainean EAGBek duen iritzia, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak agerraldia egin baino lehen.

2006ko azaroak 17

- Felisa Piedra andrea jardungo da lehendakari gisa.
- Urriaren 17ko akta onartu da, aho batez.
- Seme-alabak dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Aurreproiektuaren gaineko eztabaida.
- Aldaketa batzuk eginda, aho batez onartu da seme-alabak dituzten familiei zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpen Proiektua. Euskadiko EGABeko Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, Irizpen bezala tramitatu dezan.

2006ko azaroak 23

- Olatz Jaureguizar andrea jardungo da lehendakari gisa.
- Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu Proiektuaren gaineko Lehenengo Irizpen Aurreproiektuari buruzko deliberazioak hasi dira. Lehenengo eta behin Gobernuak bidalitako Dekretu Proiektuaren eta zerbitzu teknikoek proposatutako Irizpen Aurreproiektuaren gaineko balorazio erronda bat egin da.
- Aurrekarien (Plana, onartu gabeko bi Dekretu eta orain hirugarren bat) arabera Dekretu Proiektuaren eta Dekretu Proiektuaren beraren edukiaren benetako irismenaren gaineko eztabaida. Eztabaida horren ostean, zerbitzu teknikoek beste testu bat idatzi dezatela proposatu da, hiru punturen inguruan: aurrekariak, Dekretuaren edukia eta Batzordea sortzeko aukera.

2006ko azaroak 27

- Bixente Arriola jauna jardungo da lehendakari gisa.
- Aldaketa batzuk geratu dira egiteko azaroaren 17ko akta onartu ahal izateko.

- Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu Proiektuaren gaineko Bigarren Irizpen Aurreproiektuari buruzko deliberazioak hasi dira. Aldaketa batzuk egitea erabaki da, eta horiekin onartu egin da, LABen aurkako botoarekin, Gizarte Aurreikuspeneko Euskal Kontseilua arautzen duen Dekretu Proiektuaren gaineko Irizpen Proiektua; Euskadiko EGABeko Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio, Irizpen bezala tramitatu dezan.

MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEA

2006ko otsailak 10

- Raúl Arza jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2005eko abenduaren 21ean egin zen bileraren akta onetsi da.
- Memoria Sozio-ekonomikoaren hurrengo argitalpenaren egituraren gaineko eztabaida.
- M.^a Luz de la Calek honako proposamena egin du: Memoria sozio-ekonomikoaren oraingo edizioan aztertuko diren Kolektibo babesgabeen artean sar daitezela Etxe gabeko Pertsonak. EAERI buruzko datuak aurkeztuko dituen atal txiki bat gehitzea erabaki da.
- Gai zehatzak proposatu dira Memoriaren edukiei dagokienez, kontuan izan daitezten testua idazteko lanetan.
- Batzordeak aho batez onartu du proposatutako lan egutegia.
- Hurrengo batzarra maiatzaren 24an egitea erabaki da.

2006ko maiatzak 24

- Antxon Tomasena jauna jardungo da lehendakari gisa.
- M.^a Luz de la Calek bidalitako Aktaren aldaketa proposamenari buruzko eztabaida. Batzordeak otsailaren 10eko akta onartu du, M.^a Luz de la Calen proposamena sartu barik.
- 2006ko Memoria Sozio-ekonomikoaren lanak hastea.
- Batzordeak onartutako oinarrizko aurkibideari dagokionez egindako aldaketen aurrean, aurkibide eguneratua egitea eta banatzea erabaki da, bertan, otsailaren 10ean onartutako aurkibideari dagokionez egindako aldaketak eta gehitutakoak nabarmenduz.
- Mikel de la Fuentek «II. Kapitulua, 1.2. Hezkuntza eta heziketa sustapena» atalaren zirriborroari buruz egindako bi proposamenak berrikusi dira.
- Hurrengo batzarra ekainaren 16an egitea erabaki da.

2006ko ekainak 16

- Julene Gabiola andrea jardungo da lehendakari gisa.

- 2006ko maiatzaren 24an egin zen bileraren akta onetsi da.
- Memoriaren lanekin jarraitzea, eta jasotako eta batzordeko kideei berriz bidalitako proposamenak eta iritziak berrikustea.
- Hurrengo batzarra uztailaren 5ean egitea erabaki da.

2006ko uztailak 7

- Rafael Izquierdo jauna jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko ekainaren 16an egin zen bileraren akta onetsi da.
- Ekainaren 16ko batzordean pendiente geratu ziren gaiak berrikustea.
- Mikel de la Fuentek, Antón Borjak eta Rafael Izquierdok idatziz bidalitako ekarpenak berrikustea.
- Gaiok onartuta, berrikusitako testuak, Memoria sozio-ekonomikoaren Edukitik pendiente dauden kapituluak eta Laburpenaren eta Oharren zirriborroa bidaltzea erabaki da.
- Hurrengo batzarra uztailaren 27an egitea erabaki da.

2006ko uztailak 27

- Miren Garmendia andrea jardungo da lehendakari gisa.
- 2006ko uztailaren 7an egin zen bileraren akta onetsi da.
- Batzarrean daudenei bi dokumentu eman zaie; horietan, datu berriak eta 2005eko Memoria Sozio-ekonomikoaren aurkibidearen azken bertsioa sartu direla jakinarazi da.
- Memoria Sozio-ekonomikoaren azken kapituluei dagokienez egindako ekarpenen eztabaida.
- Julene Gabiola, Rafa Izquierdo eta Eduardo Aréchagak Laburpenaren atalari egindako proposamenen eztabaida.
- Gaiok onartuta, hurrengo batzarra irailaren 13an egitea erabaki da.

2006ko irailak 13

- Mikel de la Fuente jauna jardungo da lehendakari gisa.
- Aurreko Akta onartu barik geratu da, kideek ez dutelako aztertzeke aukerarik izan.
- 2005eko Memoria Sozio-ekonomikoaren lanekin jarraitzea.
- Eduardo Aréchaga, Rafael Izquierdo, Julene Gabiola, Mikel de la Fuente eta Fco. Javier Sanzek oharren atalari dagokionez egindako proposamenen eztabaida. Atzera ere berrikusteko epea zabaldu da; epe hori bukatuta, ez badago ezer eztabaidatzeko kapitulu hori onartutzat emango da.
- Azken bidalketa bat egingo da, azkenekoz berrikusteko, Memoria Sozio-ekonomikoaren Proiektua Osoko Bilkurara bidali baino lehen.
- Gaiok onartuta, batzarra amaitu egin da.

AKITANIAREKIN TURISMO ARLOAN LANKIDETZAN JARDUTEKO LAN-TALDEAK EGINDAKO BATZARRAK (2006)

Bilbo, 2006ko urtarrilaren 13a

- Teresa Querejazuk agerraldia egin du Lan-taldean, Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganberaren ordezkari gisa, batetik, Euskal Ganberak turismoaren alorrean egindako jarduera, eta bestetik, ardoarekin lotutako turismoaren alorrean Bordeleko Merkataritza Ganberarekin egindako jarduera azaltzeko.
- Taldeak Akitaniako Eskualdeko EGABekin turismoaren alorrean egindako lanen sintesi dokumentuaren lehenengo zirriborro partziala aztertu du, eta bertan egin beharreko aldaketak eta ekarpenak ere aztertu ditu.

Bilbo, 2006ko urtarrilaren 20a

- Mercedes Rodríguez Larraurik, Turismo Administrazio eta Lehiakortasun zuzendariak, agerraldia egin du Lan-taldean, Akitaniako turismoaren alorreko agintariekin dauden lankidetzaharremanen aurrerapausoei buruzko informazioa emateko, lan taldean 2003ko otsailean egindako agerraldiari dagokionez; horrez gain, bera Sailak turismoaren sektorerako 2006-2010erako prestatuta duen estrategia berriaren gaineko informazioa eman du.



- Akitaniako Eskualdeko EGABek, batetik, EAE eta Akitaniaren arteko turismo hurbila sustatzeko, eta bestetik, beste merkatu batzuetarako baterako eskaintzak definitzeko proposatutako gomendioak aztertu ditu Taldeak, eta Euskadiko EGABek egindako proposamenak eztabaidatu ditu.

Bilbo, 2006ko urtarrilaren 27a

- Taldeak Euskadiko EGABek eta Akitaniako Eskualdeko EGABek batera egin beharreko gomendioei buruz hausnartzen eta eztabaidatzen jarraitu zuen, lanen sintesi dokumentuan.
- Bien arteko batzar bat prestatzea aztertu zen; Batzordeok otsailaren 1ean egingo dute batzarra, turismoaren alorrean egindako lanei buruzko azken sintesiaren dokumentua aztertzeko.

II

Batzordeari buruz legean aurreikusten
diren eginkizunak gauzatzea

Batzordeari buruz legean aurreikusten diren eginkizunak gauzatzea

Indarreko legerian ezarritakoaren arabera, 2006an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak irizpen bat eman zuen, berari kontsultatutako gaien gainean. Era berean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari EA Eren ekonomia eta gizarte egoerari buruzko bere iritzi eta oharrak azaltzen dituen Urteko Memoria ere aurkeztu zien. Hainbat azterlan onartu zituen eta eztabaida jardunaldi publiko bi antolatu zituen. Atal honetan labur azaltzen dira Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere eginkizunak betetzeko egindako lanen nondik-norakoak.

45

1. BATZORDEAK KONTSULTATUTAKO GAIAK:

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak sei irizpen eta txosten bat egin ditu 2006. urtean.

- **LURZORUAREN KALITATEA IKERTZEKO ETA LEHENGORATZEKO ERAKUNDEAK ZIURTATZEARI BURUZKO DEKRETUAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO 1/2006 IRIZPENA**

Idazkaritza Teknikoa: Fco Javier Sasigain.

Euskadiko EGAB Batzordean sartu den data: 2006ko abenduaren 20an.

Batzordea: Ekonomia Garatzeko lan-taldea.

Bilera: 2006ko urtarrilaren 18an.

Emaitza: Batzordeko kideek ekarritako iritzi eta proposamenak aztertuta idatzitako Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakiak kontuan hartuta, Irizpen-proiektua eman da eta EGABeko Osoko Bilkurari bidali zaio. EGABek Osoko Bilkura egin du 2006ko otsailaren 8an. Bertan erabaki da Irizpena ematea.

- **EAEko ENPLEGUAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO 2/2006 IRIZPENA**

Idazkaritza Teknikoa: Fco Javier Sasigain.

Batzordea: Batzorde ekonomikoa.

Bilera: 2006ko otsailaren 27an.

Emaitza: Batzordeko kideek ekarritako iritzi eta proposamenak aztertuta idatzitako Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakiak kontuan hartuta, Irizpen-proiektua eman da eta EGABeko Osoko Bilkurari bidali zaio. EGABek Osoko Bilkura egin du 2006ko apirilaren 26an. Bertan erabaki da Irizpena ematea.

- **BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEN JARDUERA JAKIN BATZUK ARAUTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKO 3/2006 IRIZPENA**

Idazkaritza Teknikoa: Fco Javier Sasigain.

Batzordea: Gizarte Garapenerako Lan-batzordea

Bilera: 2006ko apirilaren 25ean

Emaitza: Batzordeko kideek ekarritako iritzi eta proposamenak aztertuta idatzitako Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakiak kontuan hartuta, Irizpen-proiektua eman da eta EGABeko Osoko Bilkurari bidali zaio. EGABek Osoko Bilkura egin du 2006ko ekainaren 6an. Bertan erabaki da Irizpena ematea.

- **BORONDATEZKO GIZARTE AURREIKUSPENEN ERAKUNDEEN BITARTEZ ANTOLATUTAKO GIZARTE AURREIKUSPEN OSAGARRIKO SISTEMA JAKIN BATZUK EZARTZEKO BIDERATUTAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK ARAUTZEKO DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKO 4/2006 IRIZPENA**

Idazkaritza Teknikoa: Fco Javier Sasigain.

Batzordea: Gizarte Garapenerako Lan-batzordea.

Bilera: 2006ko apirilaren 25ean.

Emaitza: Batzordeko kideek ekarritako iritzi eta proposamenak aztertuta idatzitako Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakiak kontuan hartuta, Irizpen-proiektua eman da eta EGABeko Osoko Bilkurari bidali zaio. EGABek Osoko Bilkura egin du 2006ko ekainaren 6an. Bertan erabaki da Irizpena ematea.

- **SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIEI ZUZENDUTAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKO 5/2006 IRIZPENA**

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Garapenerako Lan-batzordea

Bilera: 2006ko azaroaren 17an.

Emaitza: Batzordeko kideek ekarritako iritzi eta proposamenak aztertuta idatzitako Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakiak kontuan hartuta, Irizpen-proiektua eman da eta EGABeko Osoko Bilkurari bidali zaio. EGABek Osoko Bilkura egin du 2006ko abenduaren 19an. Bertan erabaki da Irizpena ematea.

- **GIZARTE AURREIKUSPENENKO EUSKAL KONTSEILUA ARAUTZEN DUEN DEKRETU PROIEKTUARI BURUZKO 6/2006 IRIZPENA**

Idazkaritza Teknikoa: Leire Ozerin.

Euskadiko EGAB Batzordean sartu den data: 2006ko azaroaren 7an.

Batzordea: Gizarte Garapenerako Lan-batzordea.

Bilerak: Batzordeak bi batzar egin zituen, azaroaren 23an eta 27an, goizeko 10etan.

Emaitza: Batzordeko kideek ekarritako iritzi eta proposamenak aztertuta idatzitako Irizpen-aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakiak kontuan hartuta, Irizpen-proiektua eman da eta EGABeko Osoko Bilkurari bidali zaio. EGABek Osoko Bilkura egin du 2006ko abenduaren 19an. Bertan erabaki da Irizpena ematea, LABen boto partikularrarekin.

- **ETXEBIZITZAREN PLAN ZUZENDARIARI (2006-2009) BURUZKO 1/2006 TXOSTENA**

Idazkaritza Teknikoa: Arantza Unzurrunzaga.

Batzordea: Gizarte Batzordea

EGABeko Osoko Bilkurak onetsi zuen 2006ko urriaren 25ean, ELAren boto partikularrarekin

EGABeko Gizarte Batzordeak 2005eko urriaren 17an onetsia.

Nahiz eta Etxebizitzaren Plan Zuzendariaren —2006/09— zirriborroak ohiko sarrera izan Euskadiko EGABen (Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailak egin-dako Irizpen eskaera gisa), uztailaren 13an, Gobernu Batzordeak EGABen Gizarte

Batzordearen lanak amaitu baino lehenago onartu izanak honako ondorioa dakar: Batzordearen Irizpena Planaren behin betiko testuaren gainean egindako Azterlan gisa plazaratzea, hain zuzen ere, Batzordearen Ekimenez egindako Azterlan bezala, eskatzaileari zein Eusko Legebiltzarrari bidaltzeko.

Euskadiko EGABen ustez, Etxebizitzaren Plan Zuzendaria (2006-2009) egokia izateaz gain, beharrezkoa da, merkatuaren gaur egungo egoera zein aurreikusten den bilakaera kontuan izanik, plan zuzendari hori delako hurrengo urteetan etxebizitzaren merkaturua arautuko duen dokumentu-markoa, geroago lege-garapena emateko.

Hala ere, Batzordearen ustez, eta Txostenean jasota dagoen bezala, Plan horri aldateta garrantzitsuak egin behar zaizkio, etxebizitza babestuaren aldeko apustua beste ekimen batzuekin osa dadin, etxebizitzaren merkaturua dinamizatze eta alokairuaren figura bultzatze aldera, gizarteko segmentu guztiei etxebizitza eskuratzeko erraztasunak emanez.

2. MEMORIA SOCIOEKONOMIKOA

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte eta ekonomi egoerari buruzko 2005eko Memoria 2006ko urriaren 25ean egindako bileran onetsi zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Osoko Bilkurak. Era honetan, organo honek, beste eginkizunen artean, EAeko ekonomia eta gizarte egoerari buruzko urteroko memoria egin eta Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari emateko legezko manua betetzen du.

Memoria hau egiteaz arduratu den lan-batzordea honela osatu da: Mikel Noval jauna (ELA), Raúl Arza jauna (UGT), Antxon Tomasena jauna (CCOO), Rafael Izquierdo jauna (LAB), Eduardo Arechaga jauna (CONFEBASK), Jaime Fernández Alcedo jauna (CONFEBASK), Rafael Aranguren jauna (Finantza Erakundeak), Miren Garmendia andrea (Arrantza Erakundeak), Mikel de la Fuente jauna (UPV-EHU), Francisco Javier Sanz jauna (Kooparatibak), Felicísimo Ayastuy jauna, Anton Borja jauna, Iñaki Barrenetxea jauna eta M.^a Luz de la Cal andrea (EGABeko aditu taldeko kideak diren aldetik) eta Arantza Unzurrunzaga andrea (batzordeko idazkari tekniko gisa). Dokumentazio teknikoa hauek egin zuten: Euskadiko EGABeko Azterlan eta Proiektuen arduradun diren Leire Ozerin, Francisco Javier Sasigain eta Arantza Unzurrunzaga jaun-andreak; horiei, Batzordean ziurtatutako erakunde, antolakunde eta adituen hainbat ekarpen gehitu zitzaizkien.

2005. urteari dagokion memoria egiteko, horren ardura zuen Batzordeak zazpi lan-batzar egin zituen: bat 2005. urtean (abenduaren 21ean), eta beste seiak 2006. urtean,

hain zuzen ere, otsailaren 10ean, maiatzaren 24an, ekainaren 16an, uztailaren 7an, uztailaren 24an eta irailaren 13an; azken egun horretan onartu zen aho batez «2005eko EAEko memoria sozio-ekonomikoa».

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtero egiten du gure Autonomia Erkidegoko egoera ekonomiko eta sozialari buruzko memoria, eta bederatzigarren honetan, batetik, errealitate ekonomiko eta sozialeko daturik garrantzitsuenak aztertzen dira, eta, bestetik, Euskadiko EGAB osatzen duten eragile ekonomiko eta sozial desberdin guztien diagnostiko bateratua eskaintzen da.

EAEko 2005. urteko Egoera Ekonomiko eta Sozialaren Egoerari buruzko Memoriak aurreko edizioetako edukien ildo nagusi bera mantendu du, nahiz eta memoriaren atal handiak berrantolatatu egin dituen; hartara, errazago egingo da urte horretan EAEn izan den bilakaera sozio-ekonomikoa irakurtzea eta ulertzea. Lehenengo atalaz gain («Laburpena eta Ohar Orokorrak»), Memoriaren edukiak honako bloke handietan banatuko dira:

II) EAEn EKONOMI JARDUERA GARATZEKO BALIABIDEAK

- *Giza Baliabideak EAEn:*
 1. DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA
 2. HEZKUNTZA ETA HEZIKETA SUSTAPENA
- *Ekoiçpen egitura eta berrikuntza EAEn:*
 1. EKOIZPEN EGITURA
 2. IKERKETA, TEKNOLOGIAREN GARAPEN ETA BERRIKUNTZA JARDUERAK
 3. INGURU NATURALA
- *Azpiegiturak*

III) EKONOMIA EAEn

1. KANPO-INGURU EKONOMIKOA
2. EAEko ABAGUNE EKONOMIKOA
3. EAEko SEKTORE PUBLIKOA
4. GIZARTE EKONOMIA
5. EAEko LAN-MERKATUA
6. PREZIOAK, KOSTUAK, PRODUKTIBITATEA ETA ERRENTAK

IV) BIZI KALITATEA EAEn

1. TALDE ZAURKOR JAKIN BATZUEN BIZI-BALDINTZAK (GAZTEAK, NAGUSIAK ETA ETXERIK GABEKO PERTSONAK)

2. OSASUNA ETA OSASUN-SISTEMA
3. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA
4. KULTURA, AISIALDIA, KIROLA ETA KONTSUMOA
5. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKERIA

V) BABESA ETA GIZARTE BAZTERKETA EAEn

1. LANGABEZIARI ZUZENDUTAKO BABESA
2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK
3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK
4. GIZARTE AURREIKUSPENENKO SISTEMA OSAGARRIAK

VI) EAEko GARAPENERAKO LANKIDETZA

VII) LEGEGINTZA JARDUERA EAEn 2005. URTEAN



Prentsari aurkeztutako data: 2006ko azaroaren 2a



3. EGABEK BERE EKIMENEZ AZTERLANAK EGITEA

2006an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere ekimenez txostenak egiten jarraitu du. 2003an hasi zen lan ildo berria da hau, aukeratutako gaietan sakondu ahal izateko, guztiak gure herriaren ekonomia eta gizarte garapenerako bereziki garrantzitsuak diren gaiak baitira. Azterlan konplexuak dira, eta horien bidez EGABek iritzi sortzaile gisa duen eginkizuna garatuko du, Euskadiko EGABi buruzko ekainaren 27ko 97/1997 Legearen 3.d artikuluan aitortzen zaion eginkizuna, alegia. Bukatutako azterlanen zerrenda ondorengo hau da:

Lana bilatzeko zailtasunak dituzten kolektiboak EAEn

- Gizarte babesa EBeko eta EAeko gizarte politikako funtsezko elementu gisa. Langabezia eta gizarte-bazterkeria funtzioen kasu berezia.

Egiten ari diren azterlanak:

- Garapen iraunkorra, politika publikoen Ingurumenaren Alorrean duten erronka, azterlan konparatua ean jarraibide batzuk definitzeko, garapen iraunkorreko estrategia bat egite aldera, ekonomia, gizarte eta ingurumen ikuspegi bat barne hartuta.

ONETSITAKO AZTERLANAK

Gizarte babesa EBeko eta EAeko gizarte politikako funtsezko elementu gisa. Langabezia eta gizarte-bazterkeria funtzioen kasu berezia.

Helburua: EAEn dagoen «gizarte babesaren» maila eta aplikatzen joan diren gizarte politikak aztertzea, eta horiek Espainiako Estatuan eta EB osoan daudenekin alderatzea.

Batzorde honek, Gizarte Politikaren zentzu zabaleko ikuspegia onartzen badu ere, lehenengo azterlan hau EAeko eta Europa Komunitario gisa ulertzen den EB-15eko «gizarte babesaren» eremura bakarrik mugatu nahi izan du, eta, bereziki, langabezia eta gizarte bazterkeria funtzioetara.

Batzordea: Gizarte Garapenerako Lan-batzordea

Talde teknikoa EGABen: Leire Ozerin (idazkari teknikoa) eta Arantza Unzurrunzaga

Aholkularitza-enpresa laguntzailea: DATLAN Kontratuaren data: 2002-11-20. Prezioa: 85.000 € (BEZ barne).

Bilerak: Batzordeak Azterlanaren gaineko 5 lan-batzar egin zituen 2006. urtean: otsailaren 24an, martxoaren 15ean, ekainaren 7an eta 28an eta irailaren 15ean.

Onespena:

EGABeko Osoko Bilkurak onetsi zuen 2006ko abenduaren 19an, ELAren boto partikularrarekin

EGABeko Gizarte Batzordeak onetsi zuen 2006ko irailaren 15ean.

Prentsari aurkeztutako data: 2006ko abenduak 20

Aurkibidea:

- I. Kapituluak: Europako gizarte-eredu hipotetikoa.
- II. Kapituluak: Gizarte-politika EBn (1957-2004).
- III. Kapituluak: EB-15eko gizarte-politikaren jardunbide egokiak.
- IV. Kapituluak: Gizarte-babesa EAeko gizarte-politikako ardatz gisa. Langabezia eta gizarte bazterketa funtzioen kasu berezia.
- V. Kapituluak: Ondorioak eta Azken Gogoeta
- **Eranskinak**

Laburpena: Gure erkidegoko zein Europako (EB-15) datuen azterketarik abiatuta Gizarte Garapenerako Batzordeak egindako lanaren emaitza gisa, ondorio eta gomendio multzo bat egin da, Euskadiko EGABen ordezkartza duten kide eta erakunde gehienek kontsentsu bidez. Hiru atal bereizi dira: pobrezia, gizarte zerbitzuak eta langabeziari zuzendutako babesak.

Adierazle nagusiei dagokienez, azterlanak hauxe dio:

2003. urtean gizarte babesari zuzendutako gastua, EAeko BPGen portzentaje gisa neurtuta, %19,2 izan da, hau da, Estatukoa baino txikiagoa (%19,7) eta EB-15eko batez bestekoa baino 9,1 puntu txikiagoa (hain zuzen ere, %28,3 izan da 2003. urtean). Bere aldetik, 2003. urtean gizarte prestazioetara zuzendutako gastuak, EAeko BPGen portzentaje gisa neurtuta %18,8 izan da, hau da, Estatukoa baino txikiagoa (%19,2) eta 8,4 puntu txikiagoa EB-15eko batez bestekoa baino (hain zuzen ere, %27,2 izan da 2003. urtean).

Gizarte babesean egindako gastu guztien finantzazioari dagokionez (hau da, jarduerak finantzatzeko sarrerak), EB-15i buruz esku artean ditugun azken datuek agerian uzten dutenez, nahiz eta gizarte babesean egindako gastuaren finantzazio-sistema ordaindutakoaren arabera izan, ekarpen publikoek finantzazio osoaren gain duten pisuaren gorakada antzematen da. Horrela, 1995. urtean ekarpen publikoek gizarte babeseko gastuen %32,2 finantzatu zuten; 2003. urtean %36,9 izan zen; baina, bestalde, gizarte kotizazioak %63,8 izatetik %60 izatera pasatu ziren.

EAeren kasuan, lehenengo eta behin enplegu-emaitzen gizarte kotizazioak azpimarratu behar dira, bigarrenaz, ekarpen publikoak, eta, hirugarrenaz, babestutako pertsonen egindako kotizazioak.

Langabezia tasa asko hobetu da eta 2004. urtean (%7,8) Estatukoa eta Europakoa baino txikiagoa da (%10,8 eta %8 hurrenez hurren). Epe luze eta oso luzeko langabezia tasek joera bera erakusten dute; hala ere, gazteen langabezia tasa Europakoa

baino altuagoa da (%20,4 eta %16,6 hurrenez hurren, 2004. urtean). Bestalde, langabezia estaltzeko tasak goranzko joera du.

Gizonezkoen eta emakumezkoen langabezia tasek berdintzeko joera izan dute EAEn (Estatuan eta EBEn baino neurri askoz handiago batean), baina oraindik ere emakumezkoena gizonezkoena baino altuagoa da. Zehazki, EAEn, 2004. urtean, gizonezkoena %6,5 da eta emakumezkoena %9,5.

PAEn egindako gastua BPGen ganean, EAEn, EBeko batez bestekoa baino pixka bat txikiagoa da. Batez besteko gastua pertsona aktiboko ere, txikiagoa da.

Langabeziagatiko prestazioei dagokienez:

Gehienak ordaindutakoaren arabera dira. Horrela, 2004. urtean, ordaindutakoaren arabera ez diren prestazioen portzentajea guztiaren %31,4 da, eta, ordaindutakoaren arabera, aldiz, %68,3.

Ordaindutakoaren arabera prestazioaren eguneko batez besteko zenbatekoa %6 hazi da, 2002 eta 2004. urteen artean, eta 23,39 euro da.

Ordaindutakoaren arabera langabezia prestazioen onuradunen %50ek baino gehiagok 15 eta 24 hilabete artean baliatzeko eskubidea dute. Hala ere, guztiaren erdiak baino gehiagok ez ditu 6 hilabeteak gainditzen, kontsumitutako denborari dagokionez.

2004. urtean, EAEn pobrezia larriko tasaren azpitik dagoen herritarren portzentajea Estatukoa eta Europakoa baino txikiagoa da; errenta baxuko tasaren azpitik dagoen biztanleriarena (ongizaterik gabekoa) Estatukoa baino txikiagoa da, baina Europako baino pixka bat altuagoa.

Eusko Jaurlaritzaren 2004ko Pobrezia eta Gizarte Ezberdintasunei buruzko Inkestaren arabera, datu hauek eman daitezke mantentze pobreziaren arriskuari dagokionez (epe laburrarekin zerikusia duena):

pobrezia larriko arriskuaren adierazleak, familiei dagokienez (%4,9) 2000. urtekoa (%5,5) baino txikiagoa da, baina 1996. urtekoa baino hiru dezima handiagoa. Pertsonen dagokienez (%3,5), 2000. (%3,6) eta 1996. urtekoak baino txikiagoa da.

ongizaterik ezaren arriskuaren adierazlea, familiei (%23,6) zein pertsonen (%19,8) dagokienez, 2000. urtekoa baino txikiagoa da (%28,8 eta %20,9, hurrenez hurren), baina 1996. urtekoa baino handiagoa.

metatze pobreziaren arriskua (epe luzearekin, eta, ondorioz, egiturazkoarekin lotutakoa), 2004. urtean, familia (%1,8) zein pertsonen (%2,2) dagokienez, 2000. urteko baino txikiagoa da (%2,1 eta %2,6, hurrenez hurren), baina 1996. urtean erregistratutako portzentajea baino handiagoa da.

Gizarte zerbitzuetara bideratuta gastuak goranzko joera du, jarduketa berriak egin direlako (normalean, prestazio ekonomikoetara eta hirugarren adinekoetara zuzendurikoak). Zehazki, 2000 eta 2003 urteen artean, %55,8 hazi da, 688.720 mila eurotik 1.073.054 mila eurora.

Azpimarratzekoa da azken urteotan era garrantzitsu batean igo direla oinarrizko errentaren jasotzaileei ordaindutako zenbatekoa eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.

EGITEN ARI DEN AZTERLANA

Garapen iraunkorra, ingurumen alorreko politika publikoen erronka. EAE-n ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdiak batuko dituen garapen iraunkorreko estrategia jorrazteko ildoak definitzeko azterlan konparatua

Arduradun teknikoa: Arantza Lopez de Munain Zulueta

Helburua: Azterlanaren xedea gizarte eta ekonomi iraunkortasunaz gain ingurumen-iraunkortasuna bilatzen duten herri politikek gure inguruan aurrera egiten duten norabideari buruzko ahalik eta ikusmolde zehatzena lortzea da, bai Europar Batasuneko nazioz gaindiko mailan bai, «jardunbide egokiei» begira, nazio eta erregio maila erkatuan. Hartara, haien bitartez ondorio egokiak atera ahal dira EAEn ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren aldetik Garapen Iraunkorrerako Estrategiari heltzeko moduari buruz. Azterlanaren arabera, sakontasunez aztertu behar da Europar Batasuneko Garapen Iraunkorraren Estrategia, horren elementu eta aplikazio guztietan; eta ekonomi, gizarte eta ingurumen aldagaiak sartu dituzten eta gure gizarte-ekonomiazko inguruko erregioetan eta herrietan diseinatu eta abiarazi diren Garapen Iraunkorrerako Estrategiak. Gauzak horrela, gure Autonomia Erkidegoan buruturiko ekimenak ebaluatu eta EAeko Garapen Iraunkorrerako etorkizuneko Estrategiaren helburu eta konpromiso ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari buruzkoak barnean hartzen dituen plangintzarako irizpide-proposamena zehaztu beharra dago.

Edukia:

- Garapen iraunkorra: Kontzeptuaren sorrera eta bilakaera.
- Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategia: Bertako oinarriak, prozedurak eta tresnak eta programa- eta sektore-garapenak xehetasunez aztertzea.
- Gure gizarte-ekonomiazko inguruko erregioetan eta herrietan diseinatu eta abiarazi diren Garapen Iraunkorrerako Estrategiak aztertzea. Zehatz esanda herrialde hauetako esperientziak aztertuko dira: Suedia, Danimarka, Erresuma Batua, Holanda, Nord-Rhein Westfallen, Valonia, Katalunia, eta Eskozia.
- Aurretiko azterketa erkatuaren testuinguruan EAeko Garapen Iraunkorrerako Estrategia ebaluatzea, bereziki ingurumen aldagaia kontutan harturik.
- Gizartea, ekonomia eta ingurumena barnean hartzen dituen EAeko Garapen Iraunkorrerako etorkizuneko Estrategia egiteko arauak zehaztu eta gomendatzea.

Aholkularitza-enpresa laguntzaileak: LKS Consulting eta Wuppertal Institute for Climate, Environment and Energy

Kontratuaren data eta zenbatekoa: 2003ko urriak 1, 161.750 €.



2006ko azaroaren 29ko lan-bilera

Azterlana aztertzen eta eztabaidatzen ari dira Garapen Ekonomikoko Lan Batzordean, eta egiten aritu izan diren bitartean, batzarrak egin dira lanen garapenaren gainean hausnartzeko eta balorazioa egiteko. Batzar horietan EGABeko erakundeetako ordezkariak parte hartu dute, eta horiek Batzorde Iraunkorrak izendatu ditu. Prozesu hori azaroaren 29an hasi zen, eta egun horretan oinarritzko testua aurkeztu zitzaizen Batzordeko kideei, euren iritzia eman zezaten.

4. EEGABEN EZTABAIDAK

2006. urtean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak beste lan ildo bati ekin zion, jardunaldi bereziak sustatuz eta antolatuz. Hauxe izan zen jarritako helburua: gogoetak, iritziak eta analisiak azaltzea, eta, bide horretatik, interes orokorreko eztabaidak sustatzea.

Helburu horrekin, korporazio-produktu berria garatu zen, hain zuzen ere, «Los debates del CES- EGABeko Eztabaidak». Lan, ekonomia eta gizartearen alorretan interesa duten eta gaur egunekoak diren gaiak aztertzeke jardunaldiak eta mintegiak antolatuko dira.

2006. urtean bi eztabaida egin ziren: Nekazaritza politika Euskal Herrian (2006/05/31) eta Enpresen Gizarte Erantzukizuna: diskurtso teorikotik praktikara (2006/12/1).

Nekazaritza politika Euskal Herrian

Koordinatzailea

- Unzalu Salterain. Euskadiko EGABeko batzordekidea eta Eztabaida proposatu duena.
- Euskadiko EGABeko batzordekide aditua Antón Borja.

Euskadiko EGABek herritar guztiei zuzendutako lehenengo eztabaida izan zen. Gogoeta eta analisi jardunaldi bat izan zen, eta Euskal Herrian nekazaritzaren sektoreak dituen erronkak aztertu ziren. Bertoko zein nazioarteko adituek parte hartu zuten, Europako erakunde, sindikatu, gizarte antolakunde eta alor akademikotik etorrita. Horien artean, José Bové globalizazioaren aurkako lider sindikala azpimarratu behar da, izan ere, berak bereganatu zuen komunikabideen arreta osoa.

Horrekin, estrategikotzat jotzen den sektore produktibo baten, hau da, nekazaritzaren errealitatea hurbildu nahi izan zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, eta nekazaritza-ekoizpenaren egoera ikuspuntu ekonomiko eta sozial batetik aztertu zuen.

Hizlari adituek parte hartu zuten, eta nazioarteko (Munduko Merkataritza Antolakundea) zein Europako (Nekazaritza-politika Komunitarioa) nekazaritza-politikek duten eragina baloratu zuten; horien eragina epe labur eta erdira; eta eskualdea eta tokian tokikoa gehiago kontuan hartzen duten politikak egituratzeko aukerak. Atal honetan Europa mailako erakunde eta gizarte mugimenduek parte hartu zuten.

Tokian tokikoari dagokionez, hainbat proposamen azaldu eta eztabaidatu ziren: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko lege bat egitea; Ipar Euskal Herrian Laborantza Ganbara abiatzea; Landa Garapeneko politiken garrantzia ebaluatzea; proposamen alternatiboak elikadura-subiranotasunari buruz; merkatuaren bilakaeraren garrantzia nekazaritza-industria eta nekazaritza-kooperatiben etorkizunean; elikadura-kontsumoaren garrantzia nekazaritza-ekoizpenaren garapenean; elikadura segurtasuna, eta abar... horiek dira, laburbilduta, jardunaldian aztertu ziren gaietako batzuk.





debates ces
eegab # eztabaidak

**Nekazaritza
Politika
Euskal Herrian**

**La Política
Agraria
en Euskal Herria**

31

maia
hora: 10:00 h.
lugar: Bilbao, Palacio Euskalduna
organiza: CES Vasco

PROGRAMA

09:45 h. Entrega de documentación

10:00 h. Presentación
D. ANTON LAFONT
Presidente del Consejo Económico y Social Vasco

10:15 h. "Presente y futuro de las Políticas Agrarias a nivel europeo y regional"
NAC DEDDINE SEONI
Jefe de Unidad, Comisión Europea
ALBERT MASSOT
Actuaria de la Unió Agrària, l'Institut i l'Unió
JEAN BAPTISTE VIALON
Candidato, Comité de Trésoriers et Sociétés agricoles et Agricultrices et des Capaces ruraux, Cijer

10:45 h. Pausa Café

12:15 h. "Presente y futuro de las Políticas Agrarias desde la óptica de los movimientos sociales"
JOSÉ BOVE
Autor mundial de la agricultura
LUIS STUBET
Economista para áreas agrícolas, Instituto Ciferri

13:15 h. Debate abierto
Modera: **ARANTZA LÓPEZ DE MUNIÁN**
Responsable Estudios y Programas CES Vasco

14:00 h. Almuerzo

16:00 h. Mesa Redonda:
"Diagnóstico y propuestas para el sector agrícola en Euskal Herria"
LUIS MYER TELLERÍA
Director de Gestión del Departamento de Agricultura del Gobierno Vasco
EDUARDO MALAGÓN
Unión Agraria País Vasco, responsable de las unidades sobre políticas de Desarrollo Rural
ANDONI GARCÍA
Sociedad EHAZ y CIAJG
MIGUEL BERRONDOGIN
Presidente de Euzko Herria Lankidetzaren Gaitasunak
ROBERTO RUIZ DE INFANTE
Investigador de Cooperativas Agrarias
NOLDO NABASQUEZ SIMÓN
Organización de Cooperativas Agrarias

17:45 h. Debate abierto
Modera: **ANTÓN BERRIA**
Universidad País Vasco y Consejo CES Vasco

18:45 h. Clausura

31

maiatza
ordua: 16:00etan
tokia: Bilboan, Euskalduna Jauregian
antolatzailea: EGAB

EGITARAUA

08:45 Dokumentazio banaketa

10:00 Jardunaldiaren aurkezpena:
E. ANTON LAFONT
CEA (Euzko Herriaren)

10:15 "Eropa eta herrialde mailan nekazaritza politikari gaur egungo egoera eta etorkizoa"
NAC DEDDINE SEONI
Unio Agraria (Europako Unioari Buruz)
ALBERT MASSOT
Unio Agraria (Euzko Herria) Administrazioaren Arduradun
JEAN BAPTISTE VIALON
Kandidatua, Comité d'Économistes et Sociétés Agricoles et d'Agriculteurs et des Capaces Rurales, Cijer

10:45 Ateraberraketa, kafea

12:15 "Nekazaritza Politikari gaur eta etorkizoko gizona mugimenduen ikuspegiari"
JOSÉ BOVE
Auzo eta Kontadoren Erakundearen buruzagia
LUIS STUBET
Gizarte Dibisioan funtzionatzen duen ekonomista

13:15 Etabaketa irekia
Modera: **ARANTZA LÓPEZ DE MUNIÁN**
CEA (Euzko Herria) eta Euzko Herriaren

14:00 Badaura

16:00 Mahai Inguru
"Euskal Herria nekazaritza sektorearen diagnostikoa eta proposamenak"
LUIS MYER TELLERÍA
Euzko Herriaren Nekazaritza Departamentuko buruzagia
EDUARDO MALAGÓN
Euzko Herriaren Unio Agraria (Euzko Herria) buruzagia
ANDONI GARCÍA
EHAZ eta CIAJG buruzagia
MIGUEL BERRONDOGIN
Euzko Herria Lankidetzaren Gaitasunak buruzagia
ROBERTO RUIZ DE INFANTE
Euzko Herria Kooperatiben Batasuna buruzagia
NOLDO NABASQUEZ SIMÓN
Euzko Herria Kooperatiben Batasuna buruzagia

17:45 Etabaketa irekia
Modera: **ANTÓN BERRIA**
Euzko Herria Unibertsitateko Euzko Herria Kontseilua

18:45 Jardunaldiaren amaiera

antolatzailea organiza



CES

Euzko Herria Unibertsitateko Euzko Herria Kontseilua
Euzko Herria Unio Agraria
Euzko Herria Kooperatiben Batasuna

(2006) irribetako inskripzioak

Tel: 944 792 150
Fax: 944 169 505
documentacion@cesvasco.es
www.cesvasco.es



58

Nekazaritza Politikaz eginiko eztabaidaren irudiak

Enpresen Gizarte Erantzukizuna: diskurtso teorikotik praktikara (2006/12/1)

Bigarren eztabaida Enpresen Gizarte Erantzukizunari buruzko gogoeta eta analisi jardunaldia izan zen, Euskadiko EGABek antolatuta.

Koordinatzailea

- Carlos Trevilla. Euskadiko EGABeko batzordekidea eta Eztabaida proposatu duena.
- Iñaki Barrenetxea. Euskadiko EGABeko Batzordekide Aditua.

Euskadiko EGABen ustez, gizarte erantzukizuna gaurkotasun eta interes handiko gaia da, eta ez dio muzin egin nahi. «Euskadiko EGABen Eztabaidak» zikloaren jarraipen gisa, enpresekin zerikusia duen, baina enpresak baino harago doan eta kudeaketa eta jarduera produktibo hutsa gainditzen duen gaurkotasun handiko gai bati ekin nahi zion: Enpresen Gizarte Erantzukizuna. Kontzeptu hori nahiko berria da, eta enpresen hazkunde egokiaren eta enpresen eta gizartearen beste arlo batzuen interakzioaren eztabaidaren ardatza bihurtu da.

Horrela, EGABek antolatutako eztabaidak lagundu egin nahi izan zuen gure inguruko enpresak lehiakorragoak, parte hartzaileagoak, produktiboagoak eta «kualifikatzaileagoak» izan daitezten.

Jardunaldian, honako galderei erantzun zitzairen, besteak beste: Politikoki zuzena den diskurtso bat baino harago, EGE tresna baliagarria al da enpresentzat?; erlazio zuzena al dago EGEn eta garapen iraunkorreko europar estrategiaren artean?; nola uztartzen dira enpresen gizarte erantzukizuna eta herritarren konfiantza?; ba al du zerikusirik EGek berregituratze prozesuetan deslokalizazio produktiboaren gaineko erabakietan?; orain arte EGE enpresa handien planteamendua izan da, zein neurrira arte edo nola eramán daiteke ETEetara?

EGABek eragile sozio-ekonomikoak eta gizarte zibileko erakundeak batu zituen Jardunaldi honetan. Europar Batzordeko Pedro Ortún eta Senatuko Ramón Jáuregui nabarmendu behar dira.





Enpresen Gizartearekiko erantzukizunaz eginiko eztabaidan hartutako irudiak



debates
eegab eztahaidak

Enpresen Gizartearekiko Erantzukizuna:
Berbaldi teorikotik praktikan jartzera

La Responsabilidad Social de las Empresas:
Del discurso teórico a su puesta en práctica

1 Astelekoa
Araia: 09:00 h.
Lugar: Saloin de Plenos del CES.
Gran Vía, 35, 5º. Bilbau
organiza: CES Vasco

1 Astelekoa
Araia: 09:00etan
Lekua: Euzkadiko EGABren Bilkura Aretoa,
Batzoki Kala Nagusia 39ean, 5. solairuan
antolatzailea: EGAB

PROGRAMA

EGITARAILUA

- 08:45 **Apertura**
D. Antxon Lafont
Presidente del CES
- 09:10 **Marco referencial: Definición y oportunidad de la RSE y dificultades para su puesta en práctica**
Dña. Sylvia Gay
*Profesora de derecho del trabajo de la EHU/UPV
Presidenta del Foro Guipuzcoano de R.S.E.*
D. Jose Félix Gonzalo
Director de organización y calidad de Forastel
- 10:00 **Políticas institucionales ante la RSE:**
D. Pedro Ortín
*Responsable de la dirección competente en RSE
de la Comisión Europea*
D. Ramón Jáuregui
*Presidencia de la subcomisión de responsabilidad
social de las empresas. Congreso de los Diputados*
D. Jorge Berezo
*Técnico del Departamento de Innovación y Promoción
Económica de la Diputación Foral de Bizkaia.*

- 08:45 **Aurkezpena**
Antxon Lafont jauna.
EGABko presidentea
- 09:10 **Enpresaren Gizartearekiko Erantzukizuna: berbaldi teorikotik praktikan jartzera**
Sylvia Gay andrea
EHU/UPVko laneko zuzendariaren irakaslea, eta
E. G. E. Guipuzkoako Forastel burua
Jose Felix Gonzalo jauna
Euzkadiako Antolatzaile eta Kalitate Zuzendari
- 10:00 **Erakundeen politikak EGABen aurrean:**
Pedro Ortin jauna
Europako Batasuneko EGABen arduradun zuzendaria
Ramón Jáuregui jauna
Enpresen gizartearekiko erantzukizunaren
subkomisioaren burua. Diputatuaren Kongresua.
Jorge Berezo jauna
Bizkaiko Foru Aldundiko Honekuntza eta Ekonomia
Sustapeneako Sektore Teknikaria

- 11:30-12:00 **Pausa café - Rueda de prensa**
- 12:05 **Las organizaciones de la sociedad civil ante la RSE: Oportunidades que brinda y obstáculos para su aplicación real**
Ordezkariak: **Dña. Marta Arozaga**
Engelera: **D. Peru Sasía**
Ordezkariak: **Nerea Salazar**,
Dña. Begoña Etxebarria
ASLE: **D. Iñaki Murgía**
BBK: **D. Iñaki Gutierrez**
Urtegi: **D. Javier Larrañaga**
- 13:35-14:30 **Debate**
- 14:35 **Clausura**

- 11:30-12:00 **Kafetako etenaldia - Prentsaurrekoa**
- 12:05 **Gizarte zibiliko erakundeak EGABen aurrean: zer aukera eskaintzen duen eta zer oztopo dagoen izatez aplikatzeko**
Ordezkariak: **Marta Arozaga** ordezkari
Engelera: **Peru Sasía** jauna
Ordezkariak: **Nerea Salazar**
Begoña Etxebarria andrea
ASLE: **Iñaki Murgía** jauna
BBK: **Iñaki Gutierrez** jauna
Urtegi: **Javier Larrañaga** jauna
- 13:35-14:30 **Etabaldia**
- 14:35 **Amaiera**

antolatzailea organiza



Responsible of the Commission
of Insurance Companies
of Spain

izena emateko inscripciones

Tel: 944 792 150
Fax: 944 169 505
documentacion@cesvasco.es
www.cesvasco.es

III

Erakunde-jarduera

Erakunde-jarduera

Batzordeko ordezkariak hainbat ekitaldi, kongresu, mintegi era mahai-ingurutan egon ziren, EAEn jarduten duten hainbat erakunde, enpresa, komunikabide, antolakunde eta elkartek gonbidatuta.

Era berean, EGABeko langile teknikoek hainbat jardunaldi, mintegi, ikastaro edo forotan parte hartu zuten urtean zehar, euren jarduera garatzeko erakundean.

Eskualdeen arteko elkarlana beste erakunde homologo batzuekin eta alor autonomikoko zein Europako beste Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde batzuekin izandako bilerak areagotu egin ziren 2006. urtean. Hainbat bisita eta erakunde-bilera egin ziren Euskadiko EGABekin ere, geure Erkidegotik zein kanpotik.

Garrantzitsuenak baino ez ditugu azpimarratuko:

ERAKUNDEETAKO BISITAK ETA BILERAK

- 06/01/17 Gasteiz, honako bisita egin zen:


Erakunde-bilera Eusko Legebiltzarreko presidentearekin **Izaskun Bilbao**



Izaskun Bilbao eta Antxon Lafont Lakuan izandako topaketan

- **06/02/16, Gasteiz:**

Erakunde-bilera **Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin.**



Eusko Jaurlaritzako lehendakariak ongietorria eman dio Euskadiko EGABeko lehendakariari

- **06/02/16, Gasteiz:**

Euskadiko EGABeko presidente Antxon Lafonten agerraldia Eusko Legebiltzarran, Lan eta Gizarte Ekintza Batzordeko Mahaiak eskatuta. Gaur egun EGABek dituen funtzionamendu arazoak eta horren gaineko irtenbideak azaltzeko deitu zuten presidentea, eta, horrez gain, sortu zenetik horien balorazioa egin zezan.

- **06/03/02, Madril, honako bisita egin zen:**

Jaime Montalvo. Espainiako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidentea

- **06/03/10, Bilbo, bisita:**

Munduko Federazio Sindicala (MFS) Munduko Federazio Sindikaleko idazkari nagusiak, George Mavrikos, bilera izan zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen presidentearekin, Antxon Lafontekin, eta idazkari nagusiarekin, Javier Muñecasekin. Mavrikosekin batera izan ziren LABeko idazkari nagusi den Rafa Diez Usabiaga; Jesus Mari Gete Nazioarteko Harremanetarako idazkaria eta Txutxi Ariznabarreta, LAB sindikatuaren ordezkari dena Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean.

- **06/03/23 Arantzazu, batzarra:**

Frantses Erretiroko Inbertsio Fondoak; EGABeko presidentea hitzaldia eman zuen.



Munduko Federazio Sindikalaren bisita

- **06/03/31 Donibane Lohizune, bilera:**
Jean François Gargou, Akitaniako Eskualdeko EGABeko presidentea, eta **Kote Olaizola**, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio zuzendaria.

- **06/04/03, Bilbo, bisita:**
LOren (Landsorganisationen in Danmark) Danimarkako Delegazioa; Euskadiko EGAB bisitatu zuen eta bilera izan zuen EGABeko presidente, idazkari nagusi eta batzordekide batzuekin. Erakunde horren hainbat langile sindikatu biltzen ditu, eta hitzarmen kolektiboak negoziatzeko baimena du, beste eskumen batzuen artean.

- **06/09/21, Donostia, batzarra:**
Jose Manuel Bujanda, Akitania-Euskadi Plataforma Logistikoaren zuzendari nagusia Donostian.

- **06/10/09, Bilbo, bisita:**
Tempus- OMAR delegazioa. Euskadiko EGABen presidenteak eta idazkari nagusiak unibertsitateko katedratiko eta irakasle talde bat hartu duten, hain zuzen ere, Frantziako Pierre Mendès Unibertsitatea, UPMF, Grenoble, Universidas de Savoie eta Rabat, Rabateko Mohamed V.a unibertsitatea. Egun horretan Bilbon aurkeztu zen Tempus Omar masterra sortzen lan egin dute arlo desberdinetan. Lurraldean Ekonomia buruzko masterra da, eta aipatutako unibertsitateek eta EHUK bultzatu dute, Tempus programaren europar babesa duela. Erakunde-karguei EHUko kontseilari den Juan Hernández batu zitzairen.



Danimarkako LO (Landsorganisationen in Danmark) taldea



Tempus-OMAR delegazioa

AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BATZORDEEKIN

- **Autonomia Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Batzordeen I. urteko topaketa. Ceuta, 2006ko maiatzaren 4a eta 5a.**

Honako EGAB hauetako presidenteak eta idazkari nagusiak bertaratu ziren: Andaluziako EGABekoak, Aragoiko EGABekoak, Asturiasko EGABekoak, Balearretako EGABekoak, Kantabriako EGABekoak, Kanarietako EGABekoak, Kataluniako EGABekoak, Gaztela-Mantxako EGABekoak, Gaztela eta Leongo EGABekoak, Ceutako EGABekoak, Extremadurako EGABekoak, Galiziako EGABekoak, Errioxako EGABekoak, Madrilgo EGABekoak, Murtziako EGABekoak, Nafarroako EGABekoak, Euskadiko EGABekoak, Valentziako EGABekoak eta Espainiako EGABekoak.

EGAB batzordeek azken hilabeteetan egindako jarduketetan balorazioa eta etorkizunerako helburuak bateratzea izan ziren lehendakariak eta idazkari nagusiek landu zituzten gai nagusiak.

Batzartutakoek bi hitzalditan parte hartu ahal izan zuten: Lehenengoa, Autonomia Erkidegoetako EGABek gaur egungo gizartean duten garrantzia, eta, bigarrena, «Espainia eta Marokoren arteko harreman ekonomiko eta komertzialen ikuspegi historikoa (1956-2005)».





- **Autonomia Erkidegoetako EGABen urteko II. topaketa, Ceuta, 2006ko urriaren 9a eta 10a**

Autonomia Erkidegoetako EGAB guztien ordezkariak bertan izan ziren. Lan-bilera egin zuten EGAB desberdinen arteko koordinazioa areagotzeko eta hobetzeko jarduerara eta proposamen txostenari buruz. Horren atzetik, Ceutako Hiri Autonomoko presidentea den Juan Jesús Vivas Larak eskainitako harrera ofizialean parte hartu zuten.

**MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA EREMU ATLANTIKOKO
EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEKIN ETA
BESTE ERAKUNDEEKIN**

BI ALDEKO LANKIDETZA AKITANIAKO CESR-EKIN

Euskadiko EGABek bi aldeko lankidetzaren harremanak ditu Akitaniako Conseil Economique et Social Régional erakundearekin. Horrela biek etengabeko elkarrizketan dihardute eta ikuspegi beretik aztertzen dituzte EAeri eta Akitaniari ardura dieten gaiak. Lehenengo Lan Batzordea sortu da. Euskadiko EGABen eta Akitaniako CES-

Reko Eskualdeen Arteko Lankidetzarako Taldearen ordezkariak osatutako batzorde hori Akitanian eta EAEn ingurune hurbileko turismoa sustatzeko aukerak aztertzen ari da; turismo mota horrek iraunkortasun-irizpideak errespetatuko ditu eta bateratu egingo ditu eskakizun ekonomikoak, gizarte arlokoak eta ingurumenaren arlokoak. Batzordea, gainera, beste merkatu batzuei begira EAEk eta Akitaniak baterako turismo-eskaintza egiteko aukerak aztertzen ari da.

Otsailaren 1ean, Euskadiko eta Akitaniako EGABen ordezkariak lan-batzordeak batzarra egin zuen Samaniegon (Arabako Errioxa); batzar horretan, egindako lanen gaineko azken sintesi dokumentu bat aztertu eta eztabaidatu zuten. Geroago, dokumentu hori berretsi egin zuten bi Batzordeen Batzorde Iraunkorrek eta Osoko Bilkurerek; eta behin betiko onartu zen. Euskadiko EGABen aldetik, Batzorde Iraunkorrek maiatzaren 17ko batzarrean eta apirilaren 26ko Osoko Bilkuran aztertu zuten.

Egindako lanak bakoitzaren turismo baliabideak, eskaintza eta merkatuak aztertu ditu, eta, horrez gain, eragile pribatu zein erakundeak, eta dauden lankidetzaren harremanak ere aztertu ditu. Azterketa hori eginda, honako ondorioa atera da: batetik, oso gutxi ustiatutako hurbiltasun merkatu bat dago, bestetik, eragile publiko eta pribatuak ez diote behar bezalako arreta eskaini, eta, azkenik, zaila da demanda horretara bideratzea. Lankidetzaren dinamika ez dago oso garatuta turismoaren alorrean, iraganeko inertzien eta desberdintasun kulturelek baldintzatzen egiten dute, elkarren ezagutza ezak (interlokutorea, merkatuena...) zaildu egiten du, eta gauza bera gertatzen da egituraketarekin eta garapenerako lankidetzaren jarraipenarekin.

Gure bi lurraldeen artean bi aldeetako lankidetzaren sendotuz gero, bakoitzaren turismo-merkatuak garatzeko dauden zailtasunak eta oztopoak baldintza hobetan gainditu ahal izango dira. Horregatik, bi Batzordeek Lankidetzaren hitzarmena sinatu dute bi administrazioen artean, helburuak hobeto lotzearren hurbiltasun turismoari dagokionez zein beste merkatu batzuetara bideratutako eskaintza bateratuak egiteari dagokionez; hitzarmen horrek jarritako helburuak bultzatu, eta euskarri eta oinarri egonkorak eta iraunkorak ahalbidetuko ditu, eta bi alderdien helburuak, edukiak eta konpromisoak finkatuko ditu; gainera, beharrezko jarduerak egin ahal izango dituzte bien artean, bakoitzaren turismo-merkatuak sustatzeko eta hobeto aprobetxatzeko, eta eskaintza bateratuak egin ahal izateko kanpo merkatuetara zuzenduta; azkenik, jardueren planifikazioa ahalbidetuko du.

Lanak, gainera, proposamen zehatzak eskaintzen ditu, zentzu honetan: teknikoak hobeto ezagutu ahal izatea eta informazio gehiago izatea bakoitzaren turismo-merkatuen gainean, hurbiltasun turismoaren alorreko lana, jarduerak bateratuak urrunago dauden merkatuei dagokienez, bien sustapena, esperientziak eta know-how trukitzea, arau-testuinguru berriaren araberrako erronka eta perspektiben gaineko gomendioak, nazioarteko eta Europako kalitatearen ziurtapena, azpiegitura berriak turismoa erakartzeko gaitasuna eta hurbiltasun harremanak azpimarratuz.

ARKU ATLANTIKOKO SAREA. RTA/ATN

Euskadiko EGAB ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeen eta Eremu Atlantikoko eskualdeetako antzeko erakundeen Plataformako kidea da. Arku Atlantikoko Sarea (RTA) deritzo plataforma horri. Beraren helburua da eskualdeen arteko lankidetzarako proiektuak eta politikak proposatzea, eskualde atlantikoen lehiakortasuna nahiz gizarte- eta lurralde-batasuna sendotuko dituztenak; gainera, eremu atlantikoko eskualde guztiei ardura dieten gaiak aztertzen ditu, azterketen emaitzak aditzera ematen ditu eta erabakitzeko ahalmena duten erakundeei aurkezten dizkie, batez ere Europar Batasunari. Honako hauek ere Arku Atlantikoko Sareko kideak dira: Kantabriako, Galiziako, Kanarietako, Ceuta, Akitania, Poitou-Charentes, Britainia, Pays de Loire, Limousin eta Centreko ekonomi eta gizarte arazoetarako batzordeak, Galeseko Foro Ekonomikoak, Lisboako Eskualdeko Enpresa Elkarteak, AERLIS, Instituto de Soldadura e Qualidade (ISQ), eta Algarveko Sindikatuen Batasuna (USALGARVE/CGTP-IN).

Arku Atlantikoko Sarea 2003-2006 urteetan EGEFen kofinantzaketa jasotzen ari da, Europar Batasuneko «INTERREG IIIB Eremu Atlantikoa» ekimenaren bitartez.

2003-2006an landutako gaiak ondorengo hauen ingurukoak izan dira:

Intermodalitatea merkantzien garraioan, itsas garraioa, portu eta hinterlandak, eta Eremu Atlantikoko kabotajea.

Segurtasuna merkantzien itsas garraioan.

Ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren transferentzia Eremu Atlantikoko eskualdeetan.

2005eko maiatzaren 31n behin betiko irizpena eman zen merkantzien itsas trafikoaren segurtasunari buruz, eta 2006. urtean RTAren lana Intermodalitatara eta Berrikuntza eta Teknologiaren transferentziara bideratu da. Horrela, aurretik landutakoei, irizpen osagarri bi egin zaizkie:

- Hain zuzen ere: Intermodalitatea merkantzien garraioan: Portuak eta Hinterland, itsas garraioa eta short sea shipping, ondorioen eta gomendioen kapitulua sakontzeko.
- Teknologiaren transferentzia eta berrikuntza: arku atlantikoko eskualdeen lankidetzarako erronkak, bi gai zehatz sakontzera zuzendua. Gai horiek Eremu Atlantikoko enpresa txiki eta ertainek berrikuntzara duten irisgarritasunarekin eta ikerlari gazteek Eremu Atlantikoan duten mugikortasunarekin daukete lotuta. Bigarren gai honen inguruan, Euskadiko EGABek hizlari lana egin zuen.

RTAren BILERAK 2006an

RTAko erabaki-organo gorenak sei hilabetez behin bildu dira, bai Batzorde Betezarazlea, Bureau-a, eta baita Osoko Bilkura eta Orientazio Batzordea:

Londres, 2006ko martxoaren 16a*RTAko Bureau-aren bilera*

RTAko lehendakariak eta lehendakariordeak osatzen dute organo hori. Lan-taldeetako lehendakariak prestatutako txostenen aurkezpena egin zen. Txosten horiek azterketa-prozesuaren eta barne-onespenaren mende jartzeko prest daude. Hori da RTAko Osoko Bilkurak azken onespena eman aurretiko urratsa. Orientazio Batzordean eztabaidatu beharreko gaiak prestatu ziren. Txostenei dagokien izapideaz gain, horien komunikazio-programa prestatu zen, eta RTAren egoera finantzarioa aztertu zen eta RTAren etorkizunari buruzko gogoeta egin zen.

Bordele, 2006ko apirilaren 28a*Orientazio Batzordearen bilera*

RTAren erabaki eta orientazio estrategikoko organo gorenak batzarra egin zuen, RTAren lan-taldek egindako txostenei buruzko iritzia emateko; aurkeztu ziren boixostenak onartu ziren: bata, Portuak eta Hinterlandak eta Intermodalitatea merkantzien garraioan, eta, bestea, Teknologia eta Berrikuntzaren Transferentzia.

Onartutako azterlanen komunikazio plana eta finantza eta aurrekontu gaiak aztertzeaz gain, kide diren Batzordeetako ordezkari gorenak euren balorazioa azaldu zuten RTAren hiru urteei dagokienez, eta, INTERREG IIIB Esparru Atlantikoaren babespean funtzionatzen daraman epea bukatuta erakunde horren etorkizunari eta izan ditzakeen orientazioei buruz hausnartu zuten.

Euskadiko EGABek aipatutako gai horiei buruz duen iritzia presidenteak, Antxon Lafontek, azaldu zuen.

Eskualde arteko bi lan-talde gogoz aritu dira lanean, azterlan horiek amaitu ahal izateko. Kide den erakunde bakoitzaren ordezkariak gainera, aztergaiarekin zerikusia duten arloetako hainbat adituk lagundu dute lan horietan; agerraldietan parte hartu dute eta euren ezagutza eta esperientzia eskaini dizkiote lan-taldeari.

- «Irisgarritasuna» izeneko lan-taldea. 2005eko iraila - 2006ko otsaila 2006. urtean batzar bat egin dute, Santanderren. Hauek dira Euskadiko EGABen ordezkariak lan-talde horretan: José María Uranga Ayestarán, IV. taldeko batzordekidea. Arantza Lopez de Munain Zulueta, RTA proiektuaren koordinatzailea Euskadiko EGABen.
- «Ikerketa, Berrikuntza eta Teknologia-transferentzia» izeneko lantaldea. 2005eko irailetik 2006ko otsailera. Bi bilera egin zituen 2006an, Poitiersen eta Bilbon. Hauek dira Euskadiko EGABen ordezkariak lan-talde horretan: Ignacio Barrenechea González, IV. taldeko batzordekidea. Leire Ozerin, Azterlan eta Proiektuen arduraduna, eta ikerlari gazteek Ereму Atlantikoan duten mugikortasunari buruzko osagarriaren txostengilea.

EUROPAKO ITSASALDEKO ESKUALDE PERIFERIKOEN KONFERENTZIA ETA ARKU ATLANTIKOKO BATZORDEA

Europako itsasaldeko 157 eskualde biltzen dituen elkarte da. Europar Batasunaren garapen orekatua sustatzen du, eskualde horiek batera dituzten aktiboen balorizazioa dela bide; Europako batasun prozesuan eskualdeek parte har dezaten arduratzen da, eta Europako agintariei gogora ekartzen dizkie itsasaldeko eta periferiako eskualdeen berezitasunak eta beharrizanak, Europako batasunaren testuinguruan. Sei batzorde geografikotan antolatuta dago eta horietariko bat Arku Atlantikoko Batzordea da. Atxikitako eskualdeetako agintarien ordezkariak kide formalak dira; eskualdeetako ekonomia eta gizarte arazoetarako batzordeek ere parte hartu ohi dute haren batzarretan.

Euskadiko EGABek Arku Atlantikoko Batzordearen Biltzar Orokorretan parte hartu zuen, bata Gijonen egin zen ekainaren 29 eta 30ean, eta bestea Murtzian urriaren 25ean.

Europako Itsasaldeko Eskualde Periferikoen Konferentziaren Biltzar Nagusian ere parte hartu zuen; Murtzian egin zen urriaren 26an eta 27an.

Era berean, CRPMek antolatutako «Energia Periferiarako» hitzaldian parte hartu zuen EGABek; Iruñean egin zen urriaren 5ean eta 6an.

IV

Giza baliabideen eta baliabide
materialen kudeaketa

Giza baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa



2006KO AURREKONTUA


Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak 2006. urtean 1.855.029,33 euroko aurrekontua izan du. Kopuru horretatik 1.678.000 euro EAeko Aurrekontu Orokorretatik finantzatu dira; 11.301 euro EGEFen diru-laguntzetatik, EGABek INTERREG IIIB «EREMU ATLANTIKOA» proiektuetan parte hartu baitu; 145.727,81 euro, aurreko ekitaldiko gerakinen kargura, eta 20.000 euro, finantza-sarreraren kargura.

Gastu eta Sarreraren 2006ko Aurrekontu Arrunta kapitulu nagusi hauetan banatu da:

	AURREKONTUA	BETE DENA	BETETZE MAILA
2006ko GASTUAK	1.855.029,33	1.563.000,03	84,26%
I. Kapituluak.- Langile gastuak	788.085,87	639.776,95	81,18%
II. kapituluak.- Funtzionamendu gastuak	675.702,56	648.531,20	95,98%
III. kapituluak.- Finantza gastuak	60,00	0,00	0,00%
IV. kapituluak.- Transf. eta Dirulag. Gastu arrunta. Transferentzia Kideak	324.180,90	239.278,81	73,81%
VI. kapituluak.- Inbertsioak	67.000,00	35.413,07	52,86%
INGRESOS 2006ko SARRERAK	1.855.029,33	1.563.000,03	84,26%
IV. kapituluak.- Transf. eta Dirulag. Gastu arrunta	1.689.301,52	1.691.742,67	100,14%
Eusko Jaurlaritzak	1.678.000,00	1.677.871,00	99,99%
Feder	11.301,52	13.871,67	122,74%
V. Kapituluak.- Ondare sarrerak. Diru-sarrera finantzarioak	20.000,00	35.156,50	175,78%
Aurreko ekitaldietako gerakinak.	145.727,81	-163.899,14	-112,47%

Gastuen likidazioen bilakaera historikoa ikusirik, esan daiteke erakundeak aurrera egin duela eta sendotu egin dela, eta beraren aholkularitza-eginkizunak ere bide beretik joan direla: EGABeko LANGILEAK





EGABEKO LANGILEAK

Hamaika lagun aritu dira 2006. urtean Euskadiko EGABen zerbitzuan, zenbait lan-
arlotan banaturik.

Azterlanak eta Proiektuak:

Patxi Sasigain (2006ko abuztura arte)

Arantza López de Munain

Arantza Unzurrunzaga

Leire Ozerin

Prentsa eta Dokumentazioa:

Maje Sáez

Begoña Etxebarria

Administrazioa eta Zerbitzuak:

Gabriel Muro

Aitor Crespo


Zuzendaritzako idazkaria:

Arantza Miñambres

Zerbitzu Orokorrak:

Beatriz Cerezo

Ane Torres





Euskadiko EGABen Dokumentazio
eta Prentsa Zerbitzua

Euskadiko EGABen Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzua

Dokumentazio eta Prentsa Zerbitzuak Dokumentazio Zentroa kudeatzen du. Zentro horrek dokumentazio-laguntza ematen die Batzordeko kideei eta langile teknikoei, euren lanak egiteko. Horrez gain, Argitalpenen Edizioa eta Batzordearen Komunikazioa kudeatzen ditu. Kanpo irudiari dagokionez, 2006. urtean EGABen Eztabaiden korporazio-irudia garatu da, eta produktu berriak sortu dira RTArako (Arku Atlantikoko Sarea).

78

DOKUMENTAZIO ZENTROA

HEMEROTEKA

Egunero-egunero prentsan agertutako gizarte eta lan arloko albiste nagusien bilduma, eta irrati eta telebistako albistegiak transkribatzen dituen beste bilduma bat banatzen dira. Bi bilduma horiek posta bidez bidaltzen dira.

LIBURUTEGIA

2006. urte amaieran Batzordearen liburutegian zegoen dokumentu-funtsa 3.063 unitate fisikok osatzen zuten (datu basean erregistratutakoak). Zenbateko horri legeriaren eta jurisprudentziaren buletinak eta erregistro automatizatu horretan sartzen ez diren bestelako liburuxka eta aldizkari sortak ere gehitu behar zaizkio.

GAI BERRIEN ASTEKO BULETINA

Astero-astero nobedade bibliografikoen buletin bat bidaltzen da posta elektronikoz. Honela sailkatuta: monografiak, aldizkariak eta beste Ekonomia eta Gizarte Batzorde batzuen argitalpenak.

AGIRIEN BILAKETAK

Zerbitzu horrek agiriaren bilaketak eskaintzen dizkie Batzordeko kideei eta langile teknikoei, euren lanak egiteko.

WEB GUNEA

2006. urtean, Euskadiko EGABerako web gune berria esleitzeko lehiaketa mugatua abiatu zen. 2006ko irailean, enpresak adjudikaziodunak, SAREINEk, lanak hasi zituen.

IRUDIEN ARTXIBATEGIA

Batzordeak izan dituen ekitaldi eta bilerarik garrantzitsuenen argazki digitalen artxibategia dauka. Argazki horiek aldizkari eta egunkariei eskaintzen zaizkie, tarteka, haien lana erraztearren.

URTEKO PRENTSA-DOSIERRA

Kontseiluaren jarduerari buruz prentsan, irratan eta telebistan emandako informazio guztiak biltzen ditu. Informazio horien edukiarekin, EGABek komunikabideetan egindako agerraldien dosier kronologikoa egiten da urtero.



ARGITALPENAK

Batzordearen baitan onesten diren edukien (irizpenak, memoriak, txostenak) ondorengo ekoizpena Prentsa eta Dokumentazio Zentroaren lana da, bera arduratzen baita diseinua egiteaz, argitalpen guztiak Euskadiko EGABen erakunde-nortasunaren eskuliburuan jasotako ildo estetikoetara molda daitezten.



Halaber, testuen itzulpen, maketatze, zuzenketa, inprimaketa eta banaketa prozesuak koordinatzen dira. Argitalpenak posta-bidalketen eta web orriaren bidez banatzen dira.

Hona hemen 2006an zehar argitaratu eta banatu diren lanak:

- 2005eko Jardueren Memoria. Edizio elebiduna, 1.000 ale.
- 2005eko Memoria Sozioekonomikoa. Gaztelaniazko edizioa, 1.500 ale. Euskarazko edizioa, 450 ale.
- 6 irizpenen edizio elebiduna. 800 ale.
- Azterlana: Gizarte babesaren EBeko eta EAeko gizarte politikaren funtsezko elementu gisa, langabezia eta gizarte bazterketa funtzioen kasu berezia.
- Txostena: Etxebizitzaren plan zuzendaria. Edizio elebiduna, 850 ale. Edizio elebiduna, 850 ale
- DVD, 300 ale. EGABen eztabaidak
- RTA NEWS. 3. zenbakia, frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz eta portugesez argitaratua. 12.500 ale.
- RTAren azterlanak. CDA lau hizkuntzatan. 12.500 ale

EUSKADIKO EGAB ETA KOMUNIKABIDEAK

Batzordean prestatzen diren azterlan, irizpen eta memoriak, baita jendearen intereseko jarduerak ere (jardunaldiak, mintegiak, agerraldiak, beste erakunde batzuekiko topaketak...) hedabideei eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurune sozioekonomikoko iritzi-aitzindariari bidaltzen zaizkie.



Erabaki edo irizpenak direnean, hedabideetara bidaltzeko prentsa oharra prestatzen da. Eduki horiek guztiak Interneten daude, Euskadiko EGABen web orriko «Notas de Prensa- Prentsa Oharrak» atalean.

Zabaldu nahi diren edukien garrantziaren arabera, kazetariei deialdia egin ala ez erabakitzen da.

2006an zehar 11 harreman izan genituen hedabideekin, prentsa oharrak eta deialdiak zenbatuta. Emandako hedapenaren jarraipena eginez, 2006an, prentsa eta agentzietako albistetan, guztira 177 informazio argitaratu zirela ondorioztatzen da. Irrati eta telebistako 30 grabazio ere jaso ziren, gure Batzordearen ekimenen inguruan. Amaitzeko 4 elkarrizketa argitaratu ziren prentsan, komunikabideek eskatuta. 2006. urtean presidenteari sakonean egindako elkarrizketa bi azpimarratu behar ditugu. Bata, TVEko lurralde zentroan (2006/03/15) Bilbon, eta bestea, Radio Euskadin Bilboko Estudioetan.

2006. URTEAN BIDLITAKO OHARRAK ETA EGINDAKO PRENTSAURREKOAK

Bilbo, 2006ko otsailaren 6a

Prentsaurrekoa Euskadiko EGABek Enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboari buruz egindako Azterlana aurkezteko. Hauek egon ziren prentsaurreko horretan: Antxon Lafont, presidentea, Javier Muñecas, idazkari nagusia eta Patxi Sagain, Azterlan eta Proiektuen arduraduna.



2006ko otsailaren 16a

Antxon Lafont presidentek agerraldia egin zuen komunikabideen aurrean, Ajuria Enean, Juan Jose Ibarretxe lehendakariarekin elkarrizketa izan ondoren.

2006ko otsailaren 16a

Antxon Lafont presidentek agerraldia egin zuen Legebiltzarreko komunikabideen aurrean, Legebiltzarreko Lan Batzordean agerraldia egin ondoren.

Bilbo, 2006ko otsailaren 21a

Prensa-oharra lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta lehengoratzeko erakundeak ziurtatzeko dekretuari buruzko irizpena eman dela jakinarazteko.

Bilbo, 2006ko apirilaren 28a

Prensa-oharra Enpleguari buruzko Legeari egindako irizpenari buruz jakinarazteko.

Bilbo, 2006ko maiatzaren 31

Prensaurrekoa «Nekazaritza Politika Euskal Herrian» Jardunaldiaren edukia aurkezteko. Antxon Lafont eta José Bové izan ziren bertan.



Bilbo, 2006ko urriaren 25a

2005eko Memoria Sozioekonomikoaren edukiak aurkezteko prentsaurrekoa. Bertan egon ziren Euskadiko EGABeko lehendakari den Antxon Lafont, idazkari nagusi den Javier Muñecas eta Azterlanen eta Proiektuen arduradun den Arantza Unzurrunzaga.

Bilbo, 2006ko azaroaren 2a

Prentsa-oharra Euskadiko EGABek Etxebizitzaren Plan Zuzendariari emandako irizpenari buruz.

Bilbo, 2006ko azaroaren 7a

Prentsaurrekoa Euskadiko EGABen Jarduera Memoria eta Balantzea aurkezteko. Antxon Lafont presidenteak egin zuen aurkezpena.

**Bilbo, 2006ko abenduaren 1a**

Prentsaurrekoa Enpresen Gizarte Erantzukizunaren Jardunaldiaren edukia aurkezteko. Hauek egon ziren bertan: Javier Muñecas, idazkari nagusia; Carlos Trevilla UGTko batzordekidea; Pedro Ortún, EGEren arduraduna Europako Batzordean; Ramón Jáuregui, Enpresen gizarte erantzukizunaren azpi-batzordeko presidentea Diputatuen Kongresuan; eta Jorge Berezo, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Sustapen Ekonomiko Saileko teknikaria.



84 **Bilbo, 2006ko abenduaren 20a**

Prentsaurrekoa Euskadiko EGABek Gizarte politikei buruz egindako Azterlana aurkezteko. Hauek egon ziren prentsaurreko horretan: Javier Muñecas, idazkari nagusia, eta Patxi Sasigain, Azterlan eta Proiektuen arduraduna.





RTAREN KOMUNIKAZIOA

2003an ofizialki sortu zen RTA erakundea (eragile ekonomiko eta sozialen Nazioz Haraindiko Sare Atlantikoa). Urte horretatik, Euskadi eta Akitaniako EGABek era koordinatuan lan egiteko konpromisoa hartu zuten, RTAren Komunikazio estrategia garatzeko asmoz. Estrategia horretatik abiatuta, RTAk hurrengo lan ildoak ditu irekita

Argitalpenak

2006. urtean, RTAren hiru azterlan argitaratu ziren, CDan, dagokion korporazio-irudiarekin.



Prensa kabinetea

Hauek osatzen dute prentsa kabinete hori

Komunikazioa Estrategia proposatzen eta betearazten du, Prentsa-oharren edukia idazten ditu, RTAren aurkezpen publikoak antolatzen ditu eta komunikabideekin izan beharreko harremanez arduratzen da.

Arduradunak:

Muriel Cultot, Conseil Economique et Social Régional D'Aquitaine

Maje Sáez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea



Web orrialdea: <http://www.rta/atn.org>

2006. urtean, <http://www.rta/atn.org> web gunearen edukiak garatu ziren (2004. urtetik dago). Atal batean informazio orokor publikoa jasotzen du, eta, bestean, soilik sareko bazkideei zuzendutako informazioa, eta eskuratzeko pasahitza behar da.

RTA News

RTA News albiste-buletinaren hirugarren zenbakia 2006ko uztailean argitaratu eta banatu zen. Argitalpen hau sareko jardueraren transmisio-tresna gisa sortu zen. Sei hilean behin argitaratzen da, 12.500 ale argitaraldi bakoitzean. Sareko bazkideak arduratzen dira zein bere eskualdean banatzeaz. Gainera, Europako erakunde eta iritzieragile guztiei bidaltzen zaie. Aldizkariaren bertsio elektronikoa eskura dago web orrian.



VI

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordeari
aplika dakioken legedia

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari aplikatu dakiokeen legedia

3/1979 LEGE ORGANIKOA, 1979ko abenduaren 18koa, Euskadiko Autonomia Estatuaren gainekoa (BOE 306 zk., 1979-12-22koa) (EHAO 32 zk., 1980-12-01ekoa)

9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen gainekoa (EHAO 141 zk., 1997-07-24koa).

ERABAKIA, osoko bilkurarena, 1997ko abenduaren 18koa, zeinetan Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduaren arautegia onesten den (EHAO 10. zk., 1998-01-16koa).

2/2000 DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko a), b) eta c) taldeetako kideak kargutik kendu eta berriak izendatzen diren (EHAO 58 zk., 2000-03-23koa).

4/2000 DEKRETUA, apirilaren 19koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Adituen Taldeko kideak izendatzen diren (EHAO 87. zk., 2000-05-10ekoa).

6/2000 DEKRETUA, ekainaren 14koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Lehendakaria izendatzen den (EHAO 117 zk., 2000-06-21ekoa).

7/2000 DEKRETUA, abuztuaren 2koa, zeinen bidez Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideak berritzen diren (EHAO 178 zk., 2000-09-15ekoa).

ERANSKIN BAKARRA:
2006ko ikuskaritza-txostena

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L., inscrita al número 23 en el Registro Especial del Instituto de Censores Jurados de Cuentas de España y al número 90204 en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas, con estudio en Bilbao, calle Diputación nº 1, emite el siguiente:

INFORME DE AUDITORÍA

1. Hemos auditado la liquidación del Presupuesto de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA, correspondiente al ejercicio 2005, así como el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias del citado Organismo, cerrado al 31 de diciembre de 2005. Nuestra actuación tiene por objeto expresar una opinión sobre los citados estados financieros, basada en el trabajo realizado de acuerdo con las normas de auditoría generalmente aceptadas, que requerico el examen, mediante la realización de pruebas selectivas, de la evidencia justificativa de los mismos y la evaluación de su presentación, de los principios contables aplicados y de las estimaciones realizadas.

2. Presentamos, a efectos comparativos, con cada una de las partidas de la liquidación del presupuesto, del balance de situación y de la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio 2005, las correspondientes al ejercicio anterior. Nuestra opinión se refiere exclusivamente a los estados financieros del ejercicio 2005. Con fecha 23 de marzo de 2005 emitimos nuestro informe de auditoría sobre los mencionados estados financieros del ejercicio 2004, en el que expresamos una opinión favorable.

3. En nuestra opinión, la liquidación del Presupuesto del ejercicio 2005 adjunta presenta adecuadamente, según criterios presupuestarios, la actividad económica de la entidad CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO/EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA durante el citado ejercicio, y el balance de situación y la cuenta de pérdidas y ganancias adjuntos, correspondiente al ejercicio 2005, reflejan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y la situación financiera de dicha entidad al 31 de diciembre de 2005, y de los resultados de sus operaciones y de los recursos obtenidos y aplicados, de conformidad con principios y normas contables generalmente aceptados, que guardan uniformidad con los aplicados en el ejercicio anterior.

GÓMEZ-BILBAO AUDITORES CJC, S.L.



Fdo.: Javier Angulo Gómez

IMPRESO EN
EUSKADI (PAISAJES
RESERVAS DE ESPAÑA)

Materia objeto:

GÓMEZ-BILBAO
AUDITORES CJC, S.L.

Año: 2005 N.º PV-091608

Copia GRATUITA

Este informe está sujeto a la Ley

19/1980 de Contabilidad y a la

Ley 22/2004 de Auditoría

de Cuentas

